



Bizkaiko Indarkeria
Matxistaren Behatokia
Observatorio de la Violencia
Machista en Bizkaia

FORU BALIABIDEAK ETA UDALERRIETAKO ETA MANKOMUNITATEETAKO BALIABIDEAK EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTA

Harrera, Aholkularitza juridikoa, Laguntza psikologikoa,
Esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala,
Familia-elkarguneak, Laguntza sozialeko Agenteen Sarea, Genero
indarkeriaren biktima izan diren adingabeetan espezializatutako familia
esku-hartzea egiteko programa

Bizkaiko Lurralde Historikoa

2023



Aurkibidea

	Orr.
Aurkezpena	3
Laburpena	5
1. Harrera	7
Bizkaiko Foru Aldundia.....	9
Udalerriak.....	11
Mankomunitateak.....	17
2. Aholkularitza juridikoa	22
Bizkaiko Foru Aldundia.....	24
Udalerriak.....	25
Mankomunitateak.....	44
3. Laguntza psikologikoa	54
Bizkaiko Foru Aldundia.....	56
Udalerriak.....	59
Mankomunitateak.....	77
4. Esku-hartze sozioedukatiboa eta psikosoziala	81
Bizkaiko Foru Aldundia.....	83
5. Familia elkargunea	92
Eusko Jaurlaritza.....	94
Udalerriak (kudeaketa).....	97
6. Laguntza sozialeko Agenteen Sarea	101
Bizkaiko Foru Aldundia.....	103
7. GI-ren biktima izan diren Adingabeetan Espezializatutako Familia esku-hartzea	105
Bizkaiko Foru Aldundia.....	107



AURKEZPENA

Bizkaiko Indarkeria Matxistaren Behatokiak *Foru Aldundiaren, udalerrien eta mankomunitateen baliabideen katalogoaren urteko edizioa* aurkezten du. Organoak urtero argitaratzen du, emakumeen aurkako indarkeria matxistari aurre egiteko erabilgarri dauden zerbitzuei eta baliabideei buruz.

Dokumentuak Bizkaiko Lurralde Historikoan foru, udal edo mankomunitateen administrazioaren menpe dauden aholkularitza juridikoko, laguntza psikologikoko eta harrerako baliabideei buruzko informazioa jasotzen du. Era berean, Foru Aldundiak eskainitako beste programa espezializatu batzuk ere sartzen dira (esku-hartze sozioedukatibo eta psikosozialari, genero-indarkeriaren biktime diren adingabeei eta laguntza sozialeko agenteei buruzkoak), bai eta lurraldean dauden deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneko zerbitzuei (FEZ) buruzko informazioa ematen duen atal bat ere. Azken zerbitzu hori amaren aldeko babes-agindu batek esku hartzen duen familietatik datozen adingabeen familia-elkarguneeen kasu kopuru altuen ondorioz sartzen da.

Biziki eskertu behar da Bizkaiko udal-erakundeetako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen koordinatzaileez, gizarte-langileez eta berdintasun-eragileez osatutako Udal Harremanetarako Sarearen lankidetzaz. Sare horren laguntzarik gabe, dokumentu hau ezinezkoa izango litzateke.

Zerbitzuen aniztasuna eta horien funtzionamendu-irizpideen ezberdintasuna kontuan hartuta, dokumentu honetan jasotako informazioa globala da, eta alderdi espezifikoei egiten die erreferentzia, hala nola zerbitzuaren kudeaketa motari, esleipen-modalitateari, hileko arreta-orduei eta zerbitzua ematen duten profesionalen kopuruari, besteak beste. Era berean, 2022ko ekitaldiko jarduera-datuak jasotzen dira, erabiltzaile-kopuruari buruzkoak -sexuaren arabera bereizita- eta, horien artean, indarkeria-arazoekin artatutako emakumeak (bikotekidearen/bikotekide ohiaren, familia barruko indarkeriaren eta/edo sexu-indarkeriaren kasuak, nahiz eta hori aholku-eskearen arrazoia ez izan).

Gainera, prestazio horien edukiari buruzko informazioa ematen da, bai eta prestazio horien hartzaile den kolektiboari buruzkoa ere. Informazio horrek laguntzen izaera berezia den ala ez erakusten du, eta eskainitako zerbitzuen izaera hobeto ezagutzea ahalbidetzen du. Dokumentuaren gaikako atal bakoitza Lurraldeko zerbitzuen estaldura irudikatzen duen mapa batekin hasten da, eta Katalogoaren aurreko edizioarekiko berrikuntza esanguratsuenak jasotzen dituen laburpen-taula batekin ixten da.

Txostena irakurri aurretik, komeni da ohartaraztea baliabide horiek oso eskaintza heterogeneoa osatzen dutela, eta izen berarekin biltzen dituztela izaera eta eduki askotarikoak izan ditzaketen zerbitzuak. Ildo horretan, antzeman dugu, batzuetan, informazio-, orientazio- eta/edo bideratze-lanak solaskidetzari eutsi dion pertsonak egiten dituela, aholkularitza edo tratamendu gisa. Era berean, datuak modu heterogeneoan erregistratzen dira, eta, bereziki, udalerrri eta mankomunitateen aholkularitza juridikoaren eta laguntza psikologikoaren kasuan, erakunde batzuek biktimei zenbaketan aplikatutako irizpide murriztailea beste batzuetan malgutu egiten da. Hori guztia dela-eta, bereziki zuhur jokatu behar dugu datuen arteko alderaketak egiteko orduan.

Txosten honen aurreko edizioan (2022) adierazitako egoerarekin alderatuta, honako aldaketa hauek erregistratu dira lurralde-baliabideen mapan.

Arreta psikologikoari dagokionez, indarkeria matxistaren biktimei laguntza Psikologikoa emateko Foru Zerbitzuak (Esnatu) deszentralizazioan aurrera egin du, eta hiru arreta-gune berri ireki ditu lurraldean, Portugaleten, Leioan eta Getxon (astean 35 orduko arreta kasu bakoitzean). Zerbitzuak astean emandako arreta-orduak 676 izatetik 536 izatera igaro dira.



Era berean, Galdakaoko eta Santurtziko udalek arlo horretako udal-programen arreta-orduak luzatu dituzte: lehenengo kasuan, hilean 20 ordu gehiago gehitzen dira, hilean 80 orduetik 100era igarotuz (% 25 gehiago); eta bigarrenean 24 orduetik 32ra igo da (%33ko igoera). Bi kasuetan ibilbide luzeko programak dira; izan ere, Galdakaok 2000. urtetik funtzionatzen du, eta Santurtzik 2006tik (udal programa bakarra da, Barakaldorekin batera, indarkerian espezializatutako arreta eskaintzen duena).

Ondorio gisa, gogorarazi behar da 2015eko uztailaren 1etik Eusko Jaurlaritzan justizia-arloko eskumena duen sailak bere gain hartzen duela Bilboko deribazio judizialaren bidezko Familia Elkargunearen (FE) zuzeneko kudeaketa. Egun horretara arte, Bizkaiko Foru Aldundiak ematen zuen zerbitzu hori, kudeaketa-gomendio baten bidez. Barakaldoko eta Portugaleteko familia-elkarguneeen kasuan modalitate horrek bere horretan jarraitzen duenez –zerbitzua, Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoa, kudeaketa-gomendio baten bidez ematen zaie udalei-, Katalogoaren edizio honetan zerbitzu-tipologia horri buruzko informazioa mantenduko da.



LABURPENA



HARRERA (ETXEAK, ZENTROAK), AHOLKULARITZA JURIDIKOA, LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA, ESKU-HARTZE SOZIOEDUKATIBOA ETA PSIKOSOZIALA, FAMILIA ELKARGUNEAK, LAGUNTZA SOZIALEKO AGENTEEN SAREA EDOTA GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN DIREN ADINGABEETAN ESPEZIALIZATUTAKO FAMILIA ESKU-HARTZEA EGITEKO

ARRETA-BALIABIDEAK DITUZTEN ERAKUNDEEN ZERRENDA.

BIZKAIA. 2023.



LABURPEN TAULA

HARRERA-BALIABIDE ESPEZIFIKOAK, AHOHKULARITZA JURIDIKOA, LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA, ESKU-HARTZE SOZIOEDUKATIBOA ETA PSIKOSOSIALA, FAMILIA ELKARGUNEKO ZERBITZUAK, LAGUNTZA SOZIALEKO AGENTEEN SAREA, EDOTA GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN DIREN ADINGABEETAN ESPEZIALIZATUTAKO FAMILIA ESKU-HARTZEA EGITEKO BALIABIDEAK DUTEN ERAKUNDEEN ZERRENDA. BIZKAIA. 2023.

ERAKUNDEAK	Harrera baliabideak (espezifikoak)	Aholkularitza juridikoa	Laguntza psikologikoa	Esku-hartze sozioedukatiboa psikosoziala	Familia elkarguneak	Laguntza Sozialeko Agenteen Sarea	GI-ren biktima Adingabeetan espezializatutako familia esku-hartzea
Bizkaiko Foru Aldundia	■	■	■	■		■	■
Eusko Jaurlaritza					■		
Abanto-Zierbenako Udala	■	■					
Amorebieta-Etxanoko Udala	■		■				
Arrigorriagako U.	■	■					
Barakaldoko U.	■	■	■		■		
Basauriko Udala	■	■	■				
Bilboko Udala	■	■	(1)				
Durangoko Udala	■						
Erandioko Udala		■	■				
Ermuako Udala	■	■	■				
Etxebarriko Udala		■					
Galdakaoko Udala	■	■	■				
Getxoko Udala		■	■				
Leioako Udala	■	■	■				
Muskizko Udala		■	■				
Orozkoko Udala			■				
Ortuellako Udala		■					
Portugaleteko U.		■	■		■		
Santurtziko Udala	■	■	■				
Sestaoko Udala	■	■	■				
Ugao-Mirab. U.		■					
Urduña/Ord. Udala		■					
Zierbenako Udala			■				
Busturialdeko M.	■	■					
Enkarterriko M.	■	(2)					
Durangoko Mer. Amankomunazgoa		■					
Mungialdeko M.	■	■	■				
Lea-Artibai Amankomunazgoa	■	■					
Lea Ibarrako M.		■					
Txorierriko M.			■				
Uribe-Kostako M.		■	■				

¹ Emakumeak Bizkaiko Foru Aldundiaren Laguntza Psikologikoa emateko Programara bideratzen dira; modulu psikosozialekin hitzarmen bat dago, itxarote-zerrenda dagoenean biktima horiei laguntza eman ahal izateko.

² 2023an, Enkarterriko Mankomunitateko aholkularitza juridikoko zerbitzua urtarriletik uztaiera bakarrik ematen da.




**1. ETXEKO INDARKERIAREN EMAKUME BIKTIMENTZAKO
HARRERA – BALIABIDE ESPEZIFIKOAK**



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
BIZKAIKO UDALERRI ETA MANKOMUNITATEAK



BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA HARRERA-BALIABIDE ESPEZIFIKOAK (ZENTROAK/ETXEAK) 2023





BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.
Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua.
Helbidea: Urkixo Zumarkalea, 4 (48008 Bilbo)
Telefonoa: 94 406 66 60

BEREHALAKO HARRERA ZERBITZUA

✚ **Helburu orokorra:** Emakumeei eta beren ardurapean dauden mendeko pertsonari (seme-alabak edo mendeko pertsona helduak izan) larrialdiko eta egonaldi laburreko arreta eta ostatu zerbitzua ematea, beren osotasun fisikoa edo emozionala arriskuan jartzen duten indarkeria matxistaren biktimak badira.

✚ **Leku-kopurua:** 24 leku (emakumeak eta haien mendeko pertsonak).

✚ **Jagote/lagun egite programa:** Egunean 24 orduetan lagun egiteko langileak dauzka.

✚ **Atxikitako langileak:** Zuzendari 1, koordinatzaile 1, 2 gizarte-langile, psikologo 1 eta 13 gizarte-hezitzaile.

✚ **Kudeaketa:** Hitzarmena erakundearekin.

✚ **Sarbidea:** Berehala, eguneko 24 orduetan eta urte osoan. Honako hauen bidez egiten da: Ertzaintza, Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Gizarte Zerbitzu Espezializatuak.

	Hartutako Pertsonak	
Berehalako Harrera 2022. urtea	<p><u>Guztira: 285 pertsona</u> 170 emakume 115 seme-alaba adingabe</p> <p><u>Kasu berriak: 263 pertsona</u> 115 emakume 108 seme-alaba adingabe (51 neska eta 57 mutil)</p>	<p><u>Egonaldi ertaineko Harrerara igaro direnak:</u></p> <p>Kasu berrien artean, honako hauei eman zaie harrera:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren zentro laguntzaileetan³: 46 emakume eta 36 seme-alaba adingabe (19 neska eta 17 mutil). ▪ Udalek babesa emateko dituzten baliabideetan (Pisuak/zentroak): 16 emakume eta 24 adingabe (9 neska eta 15 mutil).

³ Egonaldi ertaineko harrera-zentroak, arreta komunitarioko zerbitzuak eta BFAren beste zerbitzu batzuk barne.



EGONALDI ERTAINEKO HARRERA ZENTRUAK

✚ **Helburu orokorra:** Egonaldi ertaineko egoitza-zerbitzu bat eskaintzea, indarkeria matxistaren biktima diren, baztertuta edo baztertuta egoteko arriskuan dauden eta/edo babesgabetasun-egoeran dauden emakumeen eta haien seme-alaben babes- eta bizitoki-eskaerei erantzuteko, esku-hartze espezializatu integrala behar badute.

✚ **Sarbidea:** Zentroetara Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez sartzen da, Emakumearen eta Familia Esku-hartzearen Zerbitzuak indarkeria matxistaren ondoriozko babesgabetasun-egoera baloratu ondoren.

1 Zentroa

✚ **Leku-kopurua:** 26 leku (emakumeak eta haien mendeko pertsonak).

✚ **Jagote/lagun egite programa:** Egunean 24 orduan lagun egiteko langileak dauzka.

✚ **Atxikitako langileak:** Diziplinarteko talde bat, arduradun gainbegirale batek, koordinatzaile batek, psikopedagogo batek, 6 hezitzailek, 4 zaintzailek, lege-aholkulari batek eta lantegiko irakasle batek osatua.

✚ **Sarbidea:** Hitzarmena erakundearekin.

2 Zentroa

✚ **Leku-kopurua:** 6 leku (emakumeak).

✚ **Jagote/lagun egite programa:** Bizitza autonomoari laguntzeko programa.

✚ **Atxikitako langileak:** Diziplinarteko talde bat, gizarte-langile batek, 2 gizarte-hezitzailek eta psikologo batek osatua.

✚ **Sarbidea:** Hitzarmena erakundearekin.

Egonaldi ertaineko Harrera 2022. urtea*	Hartutako Pertsonak	<u>Kasu berrien jatorria:</u> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Berehalako Harrera Zerbitzutik datoz: 19 emakume eta horien ardurapeko 21 adingabe. ▪ Beste foru-zerbitzu batzuetatik sartzen dira: 7 emakume eta 2 adingabe. ▪ Oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik sarbidea dutenak: emakume 1 eta 2 adingabe.
	<p><u>Guztira: 72 pertsona</u></p> <p>39 emakume 33 adingabe (17 neska eta 16 mutil)</p> <p><u>Kasu berriak: 52 pertsona</u></p> <p>27 emakume 25 adingabe (12 neska eta 13 mutil)</p>	

*Oharra: 2022an hiru zentrok osatzen zuten zerbitzua, 42 plaza guztira. Taulan jasotako datuak horietako biri dagozkie (32 plaza), eskuragarri dauden bakarrak.



2

ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENAKO UDALA

HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1.
- ⊕ Lekuak: 5 leku.
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioko langileria.
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Ez.
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez.
- ⊕ Beste datu batzuk: Pisua 2010eko azarotik irekita dago. Bizkaiko Foru Aldundiarekin hitzartutako kudeaketa.

Harrera programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Seme-alabak		Ardurapeko beste pertsonak
			Zk.	Alabak	
	5	2	1 (adingabea)	2 (adingabeak)	0

3

AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA

HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1.
- ⊕ Lekuak: 4 leku.
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioko langileria.
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Ez.
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez.
- ⊕ Beste datu batzuk: Etxea 2009ko uztailetik irekita dago.

Harrera programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Seme-alabak		Ardurapeko beste pertsonak
			Zk.	Alabak	
	()	()	()	()	()

() Datu ez eskuragarria.



ARRIGORRIAGAKO UDALA

HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 2.
- ⊕ Lekuak: 10 leku.
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioako langileria.
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Bai.
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez.
- ⊕ Beste datu batzuk: Etxebizitza 2018tik irekita dago.

Harrera programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Seme-alabak		Ardurapeko beste pertsonak
		Zk.	Alabak	Semeak	Zk.
	0	-	-	-	-

BARAKALDOKO UDALA

HARRERA ETA ARRETA OSOKO ZENTROA: BEREHALAKO ETA LARRIALDIETAKO HARRERA ZERBITZUA, ETA ARRETA OSOKO ETA ERTAIN/LUZEXO EGONALDIKO HARRERA ZERBITZUA GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAT ETA BERE ARDURAPEKO MENPEKO PERTSONENTZAT

- ⊕ Zentro-kopurua: 1.
- ⊕ Lekuak: 16 leku.
- ⊕ Baliabide mota: Egonaldi ertain- luzeko Harrera Osoko zentroa.
- ⊕ Kudeaketa: Erakunde bat kontratatuta.
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Bai.
- ⊕ Zentroari atxikitako langileak: Gizarte langile 1, gizarte hezitzaile 1, psiko pedagogo 1 eta 4 hezkuntza laguntzailez osatutako lan taldea.
- ⊕ Beste datu batzuk: Zentroa 2009ko maiatzetik irekita dago. Aldez aurretik, harrerarako pisu bat zegoen, 2007ko apirilean martxan jarri zena; honek bertan behera utzi zuen jarduera, larrialdiko eta egonaldi ertain eta luzeko Harrera Integraleko Zentroa abian jartzean.

Harrera programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Seme-alabak		Ardurapeko beste pertsonak
		Zk.	Alabak	Semeak	Zk.
	42	21	11 (adingabeak)	10 (9 adingabe)	0



BASAURIKO UDALA

HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1.
- ⊕ Lekuak: 5 leku.
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioko langileria.
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Ez.
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez.
- ⊕ Beste datu batzuk: Pisua 1993tik irekita dago. Egonaldia gehienez lau hilabetez luza daiteke, salbuespen gisa iraupen bereko luzapena egiteko aukerarekin.

Harrera programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Seme-alabak		Ardurapeko beste pertsonak
		Zk.	Alabak	Semeak	Zk.
	0	-	-	-	-

BILBOKO UDALA

HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 9.
- ⊕ Lekuak: 45 leku.
- ⊕ Etxe-mota: Aldi baterako harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Erakunde bat kontratatuta.
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Esku-hartze sozioedukatifoko programa.
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: 3 gizarte hezitzaile.
- ⊕ Beste datu batzuk: Etxebizitzak 1988an ireki ziren.

Harrera programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Seme-alabak		Ardurapeko beste pertsonak
		Zk.	Alabak	Semeak	Zk.
	85	31	28 (20 adingabe)	26 (22 adingabe)	0



DURANGOKO UDALA

HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1.
- ⊕ Lekuak: 3 leku.
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioko langileria.
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Ez.
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez.
- ⊕ Beste datu batzuk: Etxea 2008ko urtarriletik dago irekita.

Harrera programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Seme-alabak		Ardurapeko beste pertsonak
			Zk.	Alabak	Semeak
	6	4	1 (adingabea)	1 (adingabea)	0

ERMUAKO UDALA

HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1.
- ⊕ Lekuak: 4 leku (baita sehaska aukera badago ere).
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioko langileria.
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Ez.
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez.
- ⊕ Beste datu batzuk: Etxea 1988ko urtarriletik irekita dago.

Harrera programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Seme-alabak		Ardurapeko beste pertsonak
			Zk.	Alabak	Semeak
	2	1	1 (adingabea)	0	0



GALDAKAOKO UDALA

HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1.
- ⊕ Lekuak: 5 leku.
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioko langileria.
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Ez.
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez.
- ⊕ Beste datu batzuk: Etxea 1991ko ekainetik irekita dago. Gehienez 6 hilabeteko egonaldiak, beste bi hilerako luza daitezkeenak.

Harrera programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Seme-alabak		Ardurapeko beste pertsonak
			Zk.	Alabak	
	3	1	2 (adingabe 1)	0	0

LEIOAKO UDALA

HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1.
- ⊕ Lekuak: 6 leku.
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioko langileria.
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Ez.
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez.
- ⊕ Beste datu batzuk: Etxea 2018ko ekainetik dago irekita. Gehienez 4 hilabeteko egonaldia, beste lau hilabetez luza daitekeena.

Harrera programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Seme-alabak		Ardurapeko beste pertsonak
			Zk.	Alabak	
	0	-	-	-	-



SANTURTZIKO UDALA

HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1.
- ⊕ Lekuak: 4 leku.
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioko langileria.
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Bai.
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez.
- ⊕ Beste datu batzuk: Etxea 2002ko abendutik dago irekita.

Harrera programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Seme-alabak		Ardurapeko beste pertsonak
		Zk.	Alabak	Semeak	Zk.
	10	5	4 (adingabeak)	1 (adingabea)	0

SESTAOKO UDALA

HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1.
- ⊕ Lekuak: 6 leku.
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain- luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioko langileria.
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Ez.
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez.
- ⊕ Beste datu batzuk: Etxea 2003. urtetik dago irekita. Gehienez 6 hilabeteko egonaldiak egiten dira.

Harrera programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Seme-alabak		Ardurapeko beste pertsonak
		Zk.	Alabak	Semeak	Zk.
	8	4	0	4 (adingabeak)	0



BUSTURIALDEKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Udalerriak: Ajangiz, Arratzu, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gautegiz de Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz, Sukarrieta.

HARRERA ETXEA

- ⊕ **Etxe-kopurua:** 1.
- ⊕ **Lekuak:** 5 leku.
- ⊕ **Etxe-mota:** Egonaldi ertain-luzeko harrera.
- ⊕ **Kudeaketa:** Administrazioko langileria.
- ⊕ **Jagote/lagun egite programa:** Ez.
- ⊕ **Etxeari atxikitako langileak:** Ez.
- ⊕ **Beste datu batzuk:** Baliabidea 2002ko urritik dago martxan. 2 edo 3 hilabeteko egonaldiak egiteko aukera ematen du.

Harrera programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Seme-alabak		Ardurapeko beste pertsonek
		Zk.	Alabak	Semeak	Zk.
	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)

(¹) Datu ez eskuragarria.



ENKARTERRIKO UDALERRIEN MANKOMUNITATEA

Udalerriak: Alonsotegi, Artzentaies, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Güeñes, Karrantza Harana/ Valle de Carranza, Lanestosa, Sopuerta, Trucios-Turtzioz, Zalla.

HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1.
- ⊕ Lekuak: 5 leku.
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain-luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioako langileria.
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Bai.
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez.
- ⊕ Beste datu batzuk: Baliabidea 2018ko otsailetik abian da.

Harrera programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Seme-alabak		Ardurapeko beste pertsonak
		Zk.	Alabak	Semeak	Zk.
	1	1	0	0	0



LEA-ARTIBAI AMANKOMUNAZGOA

Udalerrriak: Berriatua, Etxebarria, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Ziortza-Bolibar.

HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1.
- ⊕ Lekuak: 3 leku.
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain-luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioko langileria.
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Ez.
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez.
- ⊕ Beste datu batzuk: Etxea 2019ko maiatzetik abian da. Gehienez 4 hilabeteko egonaldia, beste lau hilabetez luza daitekeena.

Harrera programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Seme-alabak		Ardurapeko beste pertsonak
		Zk.	Alabak	Semeak	Zk.
	0	-	-	-	-



GIZARTE ZERBITZUEN MUNGIALDE MANKOMUNITATEA

Udalerriak: Arrieta, Bakio, Gamiz-Fika, Laukiz, Meñaka, Mungia.

HARRERA ETXEA

- ⊕ Etxe-kopurua: 1.
- ⊕ Lekuak: 6 leku.
- ⊕ Etxe-mota: Egonaldi ertain-luzeko harrera.
- ⊕ Kudeaketa: Administrazioako langileria.
- ⊕ Jagote/lagun egite programa: Ez.
- ⊕ Etxeari atxikitako langileak: Ez.
- ⊕ Beste datu batzuk: Baliabidea 2018ko uztailetik abian da.

Harrera programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakumeak	Seme-alabak		Ardurapeko beste pertsanak
		Zk.	Alabak	Semeak	Zk.
	7	6	1 (adingabea)	0	0



Jarraian urteroko dokumentu honen aurreko argitaraldiarekin alderatuta Bizkaiko Lurralde Historikoan Harrera baliabideetan eman diren aldaketa nagusiak batzen dira.

ALDAKETAK 2023

Baliabideen ezaugarrien aldaketak

Foru-zerbitzuak

Egonaldi Ertaineko Foru Harrera Zerbitzua hiru zentro izatetik bi izatera igaro da (42 plaza izatetik 32 plaza izatera).




2. AHOLKULARITZA JURIDIKOKO BALIABIDEAK



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
BIZKAIKO UDALERRI ETA MANKOMUNITATEAK



BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA AHOLKULARITZA JURIDIKOA 2023





BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.
Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua.
Helbidea: Urkixo Zumarkalea, 4 (48008 Bilbo)
Telefona: 94 406 66 60

✚ Programaren izena: **ARRETA SOZIOJURIDIKOKO ZERBITZUA**

✚ Helburu orokorrak:

- Tratu txarren eta sexu erasoen kasuen ondoriozko gatazkak prebenitzea eta arintzea, arreta soziojuridikoko zerbitzu baten bidez.
- Familia zuzenbidearen arloko aholkularitza juridikoa ematea, premiazko kasuetan, ezkontza-banantzearen prozeduraren aurretik, behin-behineko neurriak idaztea barne.

✚ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Bizkaiko Lurralde Historikoan bizi diren eta hurrengo baldintzak betetzen dituzten pertsonak:

- a) Tratu txarren biktima izatea, erasotua guraso-ahalaren edo zaintza eta jagoletza pean dauden seme-alabak ere barnean hartuta.
- b) Sexu-askatasunaren aurkako balizko ekintzen biktima izatea.
- c) Familia-zuzenbidearen arloan:
 - Baliabide ekonomikorik ez duten pertsonak
 - Kanpoan geratuko dira mota horretako baliabideak dituzten udalerrietan bizi diren pertsonak.

✚ Kudeaketa-mota: Clara Campoamor Elkartarekin hitzarmena.

✚ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Abokatu 1.

✚ Orduak/ hilean: Gutxienez 5 ordu egunean (gutxienez 100 ordu hilean).

✚ Programan sartzeko modua: Zuzenean elkartera deitu eta hitzordua eskatu (Tel. 944 23 91 55).

✚ Arreta egunak eta ordutegia: Astelehenetik ostegunera, 09:00etatik 19:00etara eta ostiraletan 09:00etatik 14:00etara.

Aholkularitza juridikoko programa 2022 ⁴ . urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak*		
		ZK.	Gutzizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	336	327 (302 kasu berriak)	97,3	89	15	24

⁴ Aurrez aurre artatutako pertsonen buruzko datuak soilik. Zerbitzuak telematikoki ere erantzun dezake, baina arreta-modalitate horretatik ateratako datuak ez daude jasota taulan.

* Kasu berriak.



ABANTO Y CIÉRVANA-ABANTO ZIERBENAKO UDALA

Berdintasun, Gizarte Ekintza eta Osasun Arloa.

Helbidea: El Minero Etorbidea 2, beheko solairua. (48500 Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena)

Telefonoa: 94 636 20 00

⊕ Programaren izena: **AHOLKULARITZA JURIDIKOKO ZERBITZUA. BERDINDU**

⊕ Helburu orokorrak eta garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

Programaren xedea da ondorengo hauen inguruko aholkularitza juridikoa eskaintzea:

- Familia-zuzenbidearen inguruko aholkularitza juridikoa: banatzeak, izatezko bikoteak, pentsioak, bisiten erregimena, elkar adostutako prozesuak, dibortzioak, eta abar.
- Genero indarkeriaren inguruko aholkularitza juridikoa: tratu txar fisikoak eta psikologikoak, sexu-erasoak, eta abar.
- Doako justizia eskatzeari buruzko aholkularitza.
- Bestelako kontsultak: errentamenduak, salerosketa, ordaindu gabekoak, eta abar.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Abanto Zierbenan bizi diren emakumeei eta gizonei zuzendua.

⊕ Kudeaketa-mota: Erakunde bat kontratatuta.

⊕ Orduak/ hilean: 16 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Zuzenbidean lizentziatutako pertsona bat.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2006ko martxoan jarri zen abian. Zerbitzua 2019ko ekainaren 30era arte egon zen erabilgarri. 2021eko maiatzean ekin zitzaion berriro jarduerari.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 946 36 20 00.

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: asteazkenak 09:00etatik 13:00etara.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Gutzizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	100	64	64,0	3	0	0

* Kasu berriak.



ARRIGORRIAGAKO UDALA

Gizarte Ekintza Saila.

Helbidea: Urgoiti Pasealekua, 55 – 1. solairua (48480 Arrigorriaga)

Telefonoa: 94 402 02 05 / 94 402 02 06

⊕ Programaren izena: **EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO AHOIKULARITZA JURIDIKOA**

⊕ Helburu orokorrak:

- Estaldura juridiko positiboa ematea emakumeei, familia-zuzenbidearen esparruan edota tratu txarren edota sexu-erasoen kasuetan, banakako arreta pertsonalizatua eskainiz.
- Ezkontza edo bikotea hausten denean familia-gatazkak eta, oro har, familia barruko indarkeria mota guztiak eragozte eta arintzea.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Emakumeen eskubideei buruzko aholkularitza juridikoa, familia-zuzenbidearen eta zigor-zuzenbidearen alorretan.
- Emakumeei informazioa ematea, prozedura judizial- zibil- penala abiarazteko.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion:

- Arrigorriagako emakumeei.
- Arrigorriagako poblazioari, orokorrean.

⊕ Kudeaketa-mota: Erakunde bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 16 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Zuzenbidean lizentziatutako pertsona 1.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2008ko urtarrilean abian jarri zen.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 944 02 02 05.

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Ostiraletan 10:00etatik 14:00ak arte.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	90	66	73,3	2	0	0

* Kasu berriak.



BARAKALDOKO UDALA

Emakumearen Arloa. Berdintasun Saila.
Helbidea: Herriko Plaza, 1 (48901 Barakaldo)
Telefona: 94 478 94 35

⊕ Programaren izena: **AHOLKULARITZA JURIDIKOA**

⊕ Helburu orokorrak eta garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Prozesu aurreko aholkularitza ematea, bai familia arloan eta baita zigor arloan ere. Familia-zuzenbideari dagokionez: izatezko bikotea haustea, banantzeak, dibortzioak, mantenu-pentsioak ez ordaintzeagatiko edo bisita-araubidea ez betetzeagatiko epaiak betearaztea, neurriak aldatzea, irabazpideko ondasunak likidatzea, zaintza eta babespea, eta abar. Zigor-zuzenbideari dagokionez: askatasun sexualaren aurkako delituen inguruko aholkularitza, erasoak, abusuak, bortxaketak, sexu-jazarpenak, eta abar.
- Emakumeei etxeko indarkeriari buruzko aholkularitza eta doako justizia eskuratzeko prozesuari buruzko informazioa ematea (ez da epaitegietara laguntzen).

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Tratu txarrak eta/edo sexu-indarkeria pairatzen duten emakumeei zuzenduta.

⊕ Kudeaketa-mota: Pertsona fisiko bat kontratatuta.

⊕ Orduak/ hilean: 16 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Zuzenbidean lizentziatutako pertsona bat.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: Jarduerak 2000ko urrian hasi ziren.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefona: 944 78 94 35 / 944 78 94 22.

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Ostiraletan 09:00etatik 13:00etara.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa**	Sexu-indarkeria***
	161	161	100,0	85	5	6

* Kasu berriak.

** Kasu berriak.

*** Kasu berriak.



BASAURIKO UDALA

Berdintasun Arloa- Emakumeen Informazio Zentroa (EIZ).
Helbidea: Marienea eraikina. Kareaga Goikoa, 54, 1. solairua (48970 Basauri)
Telefonoak: 94 612 41 07 (Berdintasun Arloa) / 94 612 41 01 (EIZ)

⊕ Programaren izena: **INFORMAZIO, AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA JURIDIKOA**

⊕ Helburu orokorrak: Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasuna bultzatzea, emakumeen autonomia, eta Basauriko Emakumeen Informazio Zentroko esku-hartze arlo guztietan haien partaidetza sustatzearen bidez: emakumeen eskubideak eta gizarte-partaidetza, banantze edo dibortzio prozesuak eta bikote-hausketak, emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko-langileei zuzendutako lan-arloko informazioa.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena: Indarkeriaren arloan, ondorengo jarduketa hauek gauzatzen dira:

- Tratu txarrak eta sexu-erasoak edo abusuak jasaten dituzten emakumeen legezko eskubideen berri ematea, eta beraien babeserako eska eta eskuratu daitezkeen legezko neurriei buruzko, baita gizarte- eta laguntza-neurriei buruzko informazioa ere ematea.
- Eskubide-mota oro gauzatzeko eskura daitezkeen baliabideei nahiz baliabide horiek eskuratzeko baldintzei buruzko informazioa eta orientazioa ematea.
- Zerbitzura jo duten emakumeen egoeraren aldizkako jarraipena egitea.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Emakumeak orokorrean, batez ere indarkeria matxistaren biktima direnak.

⊕ Kudeaketa-mota: Erakunde bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 140 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Abokatu 1.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri:

- 2001ean abian jarri zen.
- Beste herrietatik datozen emakumeei ere arreta ematen zaie.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 94 612 41 01.

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Aldez aurreko hitzorduarekin lan egiten da, eta hitzorduak astelehenetik ostiralera ezartzen dira.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak ⁵		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa**	Sexu-indarkeria***
	218	218	100,0	39	4	2

⁵ Datu hauek 2022ko bigarren seihilekoari dagozkie.

* Kasu berriak, 13; aurreko kasuak, 26.

** Kasu berriak, 1; aurreko kasuak, 3.

*** Kasu berriak.



BILBOKO UDALA

Berdintasun Saila.

Helbidea: Venezuela plaza, 2 – 4. solairua – Aznar eraikina (48001 Bilbo)

Telefonoa: 94 420 48 38

⊕ Programaren izena: **AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA JURIDIKOA**

⊕ Helburu orokorrak: Familia-zuzenbidearen arloko eta genero indarkeriaren arloko abokatu laguntza eta lege aholkularitza osoa ematea.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Aholkularitza eta abokatu laguntza espezializatua.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion:

- Emakumeak oro hari.
- Baliabide ekonomiko nahikorik ez duten eta udal pisuetan harreran egon diren genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei.
- Harreran egon ez arren, larritasun eta premiazko egoera berezian daudenez gero, baliabidearen aplikazioa gomendatzen zaien genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei.
- Sexu-erasoak jasan dituzten baliabide ekonomikorik ez duten emakumeei.

⊕ Kudeaketa-mota: Hitzarmena modulu psiko sozialekin:

- Auzolan modulu psikosoziala: La Naja, 5 (48003 Bilbo). Telefonoa: 94 416 36 22.
- Deustu-San Inazio mod. psikosoziala: Aoiz plaza z.g. (48015 Bilbo). Tel.: 94 475 94 72.
- Rekalde modulu psikosoziala: Camilo Villabaso, 24 (48002 Bilbo). Tel.: 94 444 98 59.

⊕ Orduak/hilean:

- Auzolan modulu psikosoziala: 152 ordu hilean.
- Deustu-San Inazio modulu psikosoziala: 32 ordu hilean.
- Rekalde modulu psikosoziala: 19 ordu hilean, gutxienez.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua:

- Auzolan modulu psikosoziala: 2 abokatu.
- Deustu-San Inazio modulu psikosoziala: Abokatu 1.
- Rekalde modulu psikosoziala: Abokatu 1.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: zerbitzu hau 1988ko azaroan abian jarri zen.



✚ Arreta egunak eta ordutegia:

- Auzolan modulu psikosoziala: astelehenetan, 08:00etatik 18:00etara; asteartetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.
- Deustu-San Inazio modulu psikosoziala: astearteetan eta ostegunetan, 09:00etatik 13:00etara.
- Rekalde modulu psikosoziala: hileko bi astelehenetan, 16:00etatik 19:00etara; eta astearte guztietan 16:00etatik 19:00etara.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira ^(*)	Emakume erabiltzaileak		Tratu txarren arazoa duten emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Gutzizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
Auzolan modulu psikosoziala	677	578	85,4	302 (kasu berriak, 279; aurreko kasuak, 23)	17 (kasu berriak, 9; aurreko kasuak, 8)	19 (kasu berriak, 8; aurreko kasuak, 11)
Deustu-San Inazio modulu psikosoziala	188	147	78,2	72 (kasu berriak, 51; aurreko kasuak, 21)	4 (kasu berriak)	0
Rekalde modulu psikosoziala	301	253	84,1	21 (kasu berriak, 7; aurreko kasuak, 14)	10 (kasu berriak, 5; aurreko kasuak, 5)	0

(*) Atal honetan datozen datuak Moduluetan hartutako pertsona-kopuru osoari dagozkio; hau da, Bilboko Udalarekin egindako hitzarmena alde batera utzi da horretan, beste Administrazio batzuetatik ere finantzaketa jasotzen baita, diru-laguntzen bidez.



ERANDIOKO UDALA

Gizarte Ekintza Saila.

Helbidea: Bekoa Ikastetxea. Desanexio Kalea, 4, Altzaga (48950 Erandio)

Telefona: 94 489 01 45

⊕ Programaren izena: **UDAL AHOLKULARITZA JURIDIKOA**

⊕ Helburu orokorrak:

- Hainbat erakundetarako sarbidea erraztea (epaitegiak, orientazio juridikoaren zerbitzua...) eta, halaber, gai juridikoei buruzko zalantzak argitzea.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programen deskribapena:

- Familia-zuzenbideko arloan informazioa, lege-aholkularitza eta doako orientazio juridikoa eskaintzen duen herritarrei zuzendutako zerbitzua. Bere helburua da: kasu askotan, bikote eta ezkontza hausturretan gerta daitezkeen familia-gatazkak baita familia barneko indarkeria mota guztiak ere prebenitzea eta ahultzea. Era berean, zerbitzuak sexu-askatasun eta kaltegabetasun sexualeko delituen, baita genero-indarkeriaren kontrako delituen biktimak diren emakumeei laguntzen ditu.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion:

- Erandion erroldatutako emakume eta gizonei zuzendua.

⊕ Kudeaketa-mota: Erakunde batekin hitzarmena (Clara Campoamor Elkarte).

⊕ Orduak/hilean: 12 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: abokatu 1.

⊕ Beste zenbat datu interesgarri: zerbitzu hau 2016ko maiatzean abian jarri zen.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefona: 94 489 02 33.

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: ostegunak 11:00etatik 14:00etara. **Arreta emateko tokia Altzaga eta Astrabudua auzoen artean txandakatzen da.**

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)

(¹) Datu ez eskuragarria.



ERMUAKO UDALA

Berdintasunerako Unitate Administratiboa.

Helbidea: Ermuko Emakumeen Topalekua. Izelaieta kalea, 12 (48260 Ermua)

Telefonoa: 94 317 10 30

⌘ Programaren izena: **AHOLKULARITZA JURIDIKOA**

⌘ Helburu orokorrak:

- Tratu txarren biktima izan diren edota egoera zailean dauden (bikote-arazoak, banantzeak, dibortzioak,...) emakumeei erabili ditzaketen baliabideen berri ematea, eta baliabide horiek erabiltzeko nora jo behar duten adieraztea, bereziki gizartetik kanporatuak izateko arriskuan dauden emakumeen kasuan. Horrez gain, aipatutako gaietan izan ditzaketen informazio-beharrei eta espezializatutako aholkularitza juridikoko beharrei erantzutea.
- Emakumeen jabeakuntza.

⌘ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Baliabideei buruzko informazio zuzena: doako justizia, genero-indarkeria,...
- Aholkularitza juridikoa familia-zuzenbidearen, tratu txarren eta sexu-erasoen inguruan.
- Banantze edo dibortzio prozesuetatik eratorritako arazoengatik inguruko informazioa eta aholkularitza.
- Genero-arrazoiek eragindako bazterkeria, babesgabatasun eta desberdintasun egoeren aurrean espezializatutako orientazioa, bereziki tratu txarrekin eta erasoekin erlazionaturikoak.
- Bestelakoak.

⌘ Zein kolektibori zuzentzen zaion:

- Ermuko emakumeak, zaugarritasun egoeran daudenak, genero-indarkeriaren biktima direnak, banantze edo dibortzio prozesuan daudenak, gatazkak dituztenak, eta abar.
- Herritarrak oro hari, gizonei ere arreta ematen baitzaie.

⌘ Kudeaketa-mota: Pertsona fisiko bat kontratatuta.

⌘ Orduak/hilean: 3 ordu hilean.

⌘ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Abokatu 1.

⌘ Beste zenbait datu interesgarri: 2004. urteko irailean abian jarri zen.

⌘ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 943 17 10 30.

⌘ Arreta egunak eta ordutegia: Astearteetan, normalean goizean.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria***
	42	42	100,0	5	0	1

* Kasu berriak.

*** Kasu berria.



ETXEBARRIKO UDALA

Gizarte Ongizate Saila.
Helbidea: Santa Ana, 1 Beheko solairua (48450 Etxebarri)
Telefona: 94 440 42 25

⌘ Programaren izena: **AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUA**

⌘ **Helburu orokorrak:** Oro har herritarren eta bereziki emakumeen gizarte ongizatea sustatzea, banantze-prozesuetan edo genero-indarkeriako egoeran dauden emakumeek eta familiek aholkularitza eta babes egokia izango dutela bermatuz -gerta daitekeen arriskuak aurreikusiz-.

⌘ **Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:**

- Familientzako aholkularitza banatze-prozesuetan eta familia-zuzenbidearekin lotutako beste batzuetan.
- Genero indarkeriari, etxeko indarkeriari eta sexu indarkeriari buruzko aholkularitza.
- Aholkularitza, beharrezkoa bada, doako justizia eskatzeko.
- Legezko ezgaitasunari eta menpekotasunari buruzko emakume eta familientzako aholkularitza.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako profesionalekin koordinatzea, deribatutako kasuen jarraipenerako eta jarduketa-lerro bateratuak ezartzeko.
- Gizarte Zerbitzuaren profesionalekin (gizarte-langileak, hezitzaileak eta, kasu zehatzetan, udaleko beste sailtako langileak edo kanpoko profesionalak) prestakuntza, koordinazioa eta kasuen jarraipena jarduketa-lerro bateratuak ezartzeko.
- Egoera zaurgarrian dauden emakume eta familiei aholkularitza eta prestakuntza ematea, arlo juridikoko prozedura eta zerbitzuei buruz.

⌘ **Zein kolektibori zuzentzen zaion:** Emakumeak (bereziki egoera zaurgarrian daudenak), baita familiak eta biztanleria, oro har.

⌘ **Kudeaketa-mota:** Pertsona fisiko bat kontratatuta.

⌘ **Orduak/hilean:** 8 ordu hilean.

⌘ **Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua:** Abokatu 1.

⌘ **Beste zenbait datu interesgarri:** 2003an jarri zen abian.

⌘ **Zerbitzura zuzenean jotzeko telefona:** 944 40 42 25 (sarbidea gizarte zerbitzuen bitartez).

⌘ **Arreta egunak eta ordutegia:** Asteazkenetan, 12:00etatik 14:00etara. Ordutegia malgua da erabiltzaileen beharren arabera.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	67	55	82,1	10	0	0

* Kasu berriak, 5; aurreko kasuak, 5.



GALDAKAOKO UDALA

Gizarte Ongizate Saila.
Helbidea: Pontzi Zabala, 3A Beheko solairua -Ardanza Lehendakariaren parkea- (48960 Galdakao)
Telefona: 94 401 05 45

⊕ Programaren izena: **GIZARTE ZERBITZUEN ERABILTZAILEENTZAKO LEGE AHOLKULARITZAKO ZERBITZUA**

⊕ **Helburu orokorrak:** Emakumeen eskubideak babesteko tresna bat eskaintzea, lege-aholkularitza emanez. Horretarako, emakumeek dituzten eskubideen inguruko informazioa eta auzibide posiblei eta hasteko akzioei buruzko informazioa ematen da.

⊕ **Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:** Aholkularitza orokorra banakakoei eta kolektibo edo elkarte interesatuei, emakumeen arazoekin zerikusia duten eta esku-hartze juridikoa izan dezaketen kasu errealei buruzkoa:

- Emakumeen eskubideen defentsa eta informazioa.
- Aholkularitza juridikoa eremu guztietan, eta bereziki familia-zuzenbideari, tratu txarrei eta sexu-erasoei buruzkoetan.

⊕ **Zein kolektibori zuzentzen zaion:**

- Galdakaoko udalerriko biztanleria, oro har, OGZak deribatu ondoren.
- Udalerriko emakumeak, deribaziorik gabe (diskriminazio positiboa).

⊕ **Kudeaketa-mota:** Pertsona fisiko bat kontratatuta.

⊕ **Orduak/hilean:** 12,5 ordu hilean.

⊕ **Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua:** Abokatu 1.

⊕ **Beste zenbait datu interesgarri:** 1992. urteko ekainean jarri zen abian.

⊕ **Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa:** 94 401 05 45 (zuzen eta gizarte zerbitzuen bitartez).

⊕ **Arreta egunak eta ordutegia:** Astearteetan ematen da zerbitzua, ordutegi desberdinarekin: hileko lehen asteartean, 17:00etatik 19:00etara. Azkenekoan, 09:15etik 12:15era; eta gainerako astearteetan, 09:15etik 13:00etara.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Gutzizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa**	Sexu-indarkeria***
	121	104	86,0	14	3	2

* Kasu berriak, 8; aurreko kasuak, 6.

** Kasu berriak.

*** Kasu berri 1.



GETXOKO UDALA

Gizarte Ongizate Saila.
Helbidea: Urgull kalea, z.g. – 1. solairua (48991 Getxo)
Telefona: 94 466 01 01

⊕ Programaren izena: **LEGE AHOLKULARITZAKO ZERBITZUA**

⊕ Helburu orokorrak:

- Zerbitzuan hartutako pertsonen beren eskubideei eta erabateko gizarteratzea lortzeko baliabide egokiei buruzko informazioa eta aholkularitza ematea.
- Zuzenbidea erabiltzaileetara eta, bereziki, emakumeetara hurbiltzea.
- Berariazko laguntza eta babes zehatza ematea baliabide ekonomiko urriak dituzten emakumeei, erabakiak hartzeko une jakinetan.
- Tratu txarrak edo beste edozein motako genero-indarkeria jasan duten emakumeei orientazio juridikoa ematea.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Legezko informazioa, aholkularitza eta laguntza ematea hala behar duten oinarrizko gizarte zerbitzuen erabiltzaileei.
- Eskatzaileen arazo legalak konpon daitezzen bilatzea, izapidetzea edota lege-ordezkaritza kanpoan geratzen direlarik.

Zerbitzuak bi ardatz ditu: jendaurreko arreta eta informazioa eta kontsulta udal gizarte zerbitzuetako profesionalentzat.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Biztanleria oro hari.

⊕ Kudeaketa-mota: Pertsona fisiko bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 12 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Zuzenbidean lizentziatutako pertsona 1.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 1992. urtean ekin zion jarduerari.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefona: 94 466 01 01.

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Ostegunetan 07:45etik 10:45era.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa**	Sexu-indarkeria***
	97	77	79,4	7	1	1

* Kasu berriak.

** Kasu berria.

*** Kasu berria.



LEIOAKO UDALA

Gizarte Zerbitzuen Saila.
Helbidea: Inaurratzaga, 1 beheko solairua (48940 Leioa)
Telefona: 94 480 13 36

⊕ Programaren izena: **ATZERRITARTASUNA, GENERO INDARKERIA ETA FAMILIA GAIENTZAKO AHOLKULARITZA JURIDIKOA**

⊕ **Helburu orokorrak:** Informazio eta aholkularitza arlo legal eta juridikoan, eskubide zibilak, familiako, atzeritartasuneko eta genero indarkeriako eskubideak, eta instituzioekiko harremanak lehentasuna izanez.

⊕ **Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:** Planteatutako kasuei babes ematea, laguntza ematea eta jarraipena egitea.

⊕ **Zein kolektibori zuzentzen zaion:** Biztanleria orokorrean.

⊕ **Kudeaketa-mota:** Erakunde bat kontratatuta.

⊕ **Orduak/hilean:** 48 ordu hilean.

⊕ **Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua:** Profesional 1.

⊕ **Beste zenbait datu interesgarri:** 1991. urteko urrian jarri zen abian. 2017tik aurrera programa biztanleria osoa artatzen hasten da.

⊕ **Zerbitzura zuzenean jotzeko telefona:** 94 401 22 00 / 667 33 41 69.

⊕ **Arreta egunak eta ordutegia:** Asteazken eta ostiraletan 09:00etatik 15:00etara. **Arreta Sabino Arana 67ko behe solairuan ematen da.**

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	229	167	72,9	26	0	0

* Kasu berriak, 12; aurreko kasuak, 14.



MUSKIZKO UDALA

Gizarte Ekintza Saila. Berdintasuna, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Arloa.
Helbidea: San Juan, 2 – 1. Solairua (48550 Muskiz)
Telefona: 94 670 99 36

✚ Programaren izena: **LEGE AHOLKULARITZAKO ZERBITZUA**

✚ Helburu orokorrak: Gizarte zerbitzuetatik datozen pertsonen lan arloko, familia inguruko eta zigor kontuetako zuzenbidearen inguruan sor daitezkeen arazoei buruzko orientazio juridikoa ematea, modu erraz eta hurbilean.

✚ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Familia-, lan arlo- eta zigor- zuzenbideko gaien inguruko informazio juridikoa ematea, lehentasuna emanaz tratatu txarren edota sexu-erasoen biktima izan direnei.
- Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren ofiziozko txandaren esku geratzen diren kasuen jarraipena egitea (genero indarkeria).
- Emakumeak eguneroko bizitzan sor daitezkeen arazoak konpontzeko gai izatea sustatzea, egoera bakoitzari egokitutako baliabideak bilatuz.
- Baliabide juridikoak eta horietara iristeko bideak erraz eskuratzea ahalbidetzea.
- Salaketak edota epaitegien aurreko errekursoak idazten eta aurkezten laguntzea.
- Udaleko Berdintasun Arloko nahiz Gizarte Ongizate Saileko teknikariei aholkularitza ematea, sor daitezkeen arazo legal zehatzen inguruan, eta emandako laguntza itzultzea, txosten tekniko baten bidez, gizarte zerbitzuetako profesionalak bideratutako kasu horietan.

✚ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Muskiz udalerriko biztanleak (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek deribatuta), indarkeria matxistaren biktima diren emakumeek eta/edo karga familiarrak edo beste arazo batzuk dituzten emakumeek lehentasuna izanik.

✚ Kudeaketa-mota: Erakunde bat kontratatuta.

✚ Orduak/hilean: 10 ordu hilean.

✚ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Zuzenbidean lizentziatutako pertsona 2.

✚ Beste zenbait datu interesgarri: 2002ko abenduan ekin zion jarduerari.

✚ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 94 655 28 73.

✚ Arreta egunak eta ordutegia: Ostegunetan, aste bat 12:00etatik 14:30era eta hurrengo astean 16:00etatik 18:30etara.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)

(¹) Datu ez eskuragarria.



ORTUELLAKO UDALA

Gizarte Ekintza Saila: Gizarte-Zerbitzua eta Esku-Hartze Komunitarioa.
Helbidea: Meatzariaren Etorbidea, 7 (48530 Ortuella)
Telefona: 94 632 10 35 / 94 664 02 00

⌘ Programaren izena: **LEGE-AHOLKULARITZARAKO ZERBITZUA**

⌘ Helburu orokorrak: Emakumeei beren egoera pertsonalaren, familiarraren, sozialaren eta abarren ondorioz planteatzen diren arazoengatik inguruko lehenengo erantzun juridikoa ematea, modu erraz eta hurbilean.

⌘ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Emakumeek beren eskubideak ezagutzea eta horrek ematen dizkien aukerak baliatzea ahalbidetzea.
- Eguneroko bizitzan sortzen zaizkien arazo juridikoen inguruko aholkularitza ematea.
- Existitzen diren baliabide juridikoak, eta horietara iristeko bideak, erraz eskuratzea ahalbidetzea.
- Salaketak edota epaitegien aurreko errekursoak idazten eta aurkezten laguntzea.
- Udaleko teknikariei (Berdintasun Arloa eta Gizarte Ongizate Saila) arazo legal zehatzen inguruko laguntza ematea.

⌘ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Ortuellako emakumeei zuzendua.

⌘ Kudeaketa-mota: Pertsona fisiko bat kontratatuta.

⌘ Orduak/hilean: 8 ordu hilean.

⌘ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Abokatu 1.

⌘ Beste zenbait datu interesgarri: 2006ko irailean jarri zen abian zerbitzu hau.

⌘ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefona: 94 664 02 00.

⌘ Arreta egunak eta ordutegia: Ostegunetan txandakako ordutegian, aste bat 12:30etik 14:30era eta beste aste bat 16:00etatik 18:00etara. **Arreta Catalina Gibaja 10eko behe solairuan ematen da.**

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa**	Sexu-indarkeria***
	74	56	75,7	10	1	2

* Kasu berriak, 5; aurreko kasuak, 5.

** Kasu berria.

*** Kasu berriak.



PORTUGALETEKO UDALA

Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Saila.
Helbidea: Solar plaza, z.g. 1. solairua (48920 Portugalete)
Telefona: 94 472 92 12 / 94 472 91 68

Programaren izena: **ZAILTASUNEAN DAUDEN PORTUGALETEKO EMAKUMEENTZAKO ARRETA SOZIO-JURIDIKOKO ZERBITZUA**

Helburu orokorrak: Orientazio juridikoa ematea familia-zuzenbidearekin erlazionatutako gaien inguruan eta/edo tratu txarren eta/edo sexu-erasoen kasuetan.

Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Emakumearen aldeko aholkularitza juridikoa familia-zuzenbidearen arloan eta/edo tratu txarren eta/edo sexu-erasoen kasuan.
- Ahal den heinean behintzat, prebenitzea familia-gatazkak bikotea edo senar-emazteak banatzen diren kasuetan, baita familiaren barruko edozein indarkeria mota prebenitzea ere.

Zein kolektibori zuzentzen zaion: Portugaleteko emakumeei zuzendua.

Kudeaketa-mota: Erakunde batekin hitzarmena.

Orduak/hilean: 20 ordu hilean.

Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Abokatu 1.

Beste zenbait datu interesgarri: 2009. urteko martxoan ekin zion jarduerari.

Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 94 472 92 12 (zerbitzura oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik eta zuzenean heldu daiteke).

Arreta egunak eta ordutegia: Ostiraletan 10:00etatik 15:00etara.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	114	87	76,3	19	0	0

* Kasu berriak.



SANTURTZIKO UDALA

Gizarte Ekintza Saila. Emakume eta Berdintasun Zerbitzua.
Helbidea: Sabino Arana, 3 – Antzinako nautika-eskolako egoitza (48980 Santurtzi)
Telefona: 94 420 58 00 – 321 luzapena.

⊕ Programaren izena: **AHOLKULARITZA JURIDIKOA**

⊕ Helburu orokorrak: Familia-zuzenbidearekin edota tratu txarren edo sexu-erasoen kasuekin zerikusia duten gaien inguruko orientazio juridikoa ematea.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Aholkularitza juridikoa.
- Doako justizia eskatzeari buruzko aholkularitza.
- Lagundutako kasuen jarraipena, beharrezkotzat hartzen bada.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Santurtziko emakumeei, genero-indarkeriaren biktimei, banantze edo dibortzio prozesuan daudenei, eta seme-alaben zaintzaren edota elikadura-pentsioaren lorpen prozesuan dauden emakumeei.

⊕ Kudeaketa-mota: Erakunde bat kontratatua.

⊕ Orduak/hilean: 16 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Abokatu 1.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: Santurtziko udalak 1998. urtetik eskaintzen du aholkularitza juridikoa. Lehendabizi erakunde batekin egindako hitzarmen baten bidez; 2004ko otsailetik 2007ko ekainera arte kudeaketa zuzenarekin (udalean integratutako emakumeentzako orientazio zerbitzu baten bidez) eta 2007ko urritik berriro ere kanpoko erakunde baten bidez.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefona: 944 20 58 00 (sarbidea Emakume eta Berdintasun Zerbitzuaren bitartez egiten da).

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Asteazkenetan, 09:00etatik 13:00etara.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa**	Sexu-indarkeria***
	218	218	100,0	44	4	12

* Kasu berriak, 25; aurreko kasuak, 19.

** Kasu berriak.

*** Kasu berriak, 9; aurreko kasuak, 3.



SESTAOKO UDALA

Berdintasun Arloa.

Helbidea: Castaños Eraikuntza. Las Llanas Zumardia, 4 – 2. Solairua, 10. bulegoa (48910 Sestao)

Telefonoa: 94 472 90 39

⊕ Programaren izena: **EMAKUMEEI ORIENTAZIO JURIDIKOA EMATEKO DOAKO**

ZERBITZUA

⊕ **Helburu orokorrak:** Orientazio juridikoa ematea zaugarritasun egoeretan dauden emakumeei eta genero-indarkeriaren zein sexu-erasoen biktimak diren emakumeei.

⊕ **Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:** Zerbitzuak gai hauei buruzko informazio juridikoa ematen du:

- Familia-zuzenbidea
- Lan-zuzenbidea
- Zuzenbide zibila
- Doako justizia-zerbitzuak eskuratzeko bideak

⊕ **Zein kolektibori zuzentzen zaion:** Sestaoko udalerrian erroldatutako eta indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeak nahiz zaugarritasun egoeretan daudenak.

⊕ **Kudeaketa-mota:** Erakunde batekin hitzarmena (Neba-Neba elkartea).

⊕ **Orduak/hilean:** 16 ordu hilean.

⊕ **Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua:** Abokatu 2.

⊕ **Beste zenbait datu interesgarri:** 2009. urtean jarri zen abian.

⊕ **Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa:** 944 95 04 99 (aldez aurreko hitzordua).

⊕ **Arreta egunak eta ordutegia:** Astelehenetan 18:00etatik 20:00etara eta ostegunetan 10:00etatik 12:00etara.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa	Sexu- indarkeria***
	40	40	100,0	12	0	2

* Kasu berriak.

*** Kasu berriak.



UGAO-MIRABALLESEKO UDALA

Gizarte Ongizate Saila.
Helbidea: Herriaren Enparantza, z.g. (48490 Ugao- Miraballes)
Telefona: 94 648 07 11

⊕ Programaren izena: **AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUA**

⊕ Helburu orokorrak: Familiako gatazkak prebenitzea eta arintzea, familia-zuzenbidearen arloko, tratu txarren arloko eta sexu-erasoen arloko aholkularitza juridikorako programa bat ezartzearen bidez.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena: Familia zuzenbideari buruz, eta tratu txar edota sexu-erasoei buruz, argibide juridikoak ematea.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Ugao-Miraballeseko biztanleei zuzendua, batez ere emakumeei.

⊕ Kudeaketa-mota: Pertsona fisiko bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: ordu 2 hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Zuzenbidean lizentziatutako pertsona 2.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2008ko maiatzean jarri zen abian zerbitzu hau.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefona: 94 632 21 54 / 94 648 07 11.

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Hileko bigarren ostegunean, txandakako ordutegian: 10:00etatik 12:00etara hilabete batean eta 16:00etatik 18:00etara hurrengoan.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	26	(¹)	-	0	0	0

(¹) Datu ez eskuragarria.



URDUÑA/ORDUÑAKO UDALA

Gizarte Ongizate Saila.
Helbidea: Foru plaza, 1 (48460 Urduña/Orduña)
Telefona: 945 38 30 03

⊕ Programaren izena: **AHOLKULARITZA JURIDIKOA**

⊕ Helburu orokorrak: Lege-aholkularitza ematea, emakumeek dituzten eskubideen inguruko informazioa eta auzibide posibleei eta hasteko akzioei buruzko informazioa emanez.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena: Ondoko arlo juridiko hauen inguruko informazioa eta aholkularitza ematea:

- Familia-zuzenbidea, zigor-zuzenbidea eta lan arloko zuzenbidea.
- Immigrazioa.
- Indarkeria, sexu-erasoak, sexu-esplotazioa eta gizaki-trafikoa.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion:

- Gizarte zerbitzuekin harremanean dauden Urduña/Orduñako udalerriko pertsonak.
- Urduña/Orduñako udalerriko emakumeak:
 - Arrisku-egoeran dauden emakumeak.
 - Banantze edo dibortzio prozesuan dauden, edota genero-indarkeriako espedienteak dituzten emakumeak.
 - Etxean tratatu txarrak jasotzen dituzten emakume inmigranteak.

⊕ Kudeaketa-mota: Pertsona fisiko bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 4 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: 2 abokatu.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2005. urteko urrian jarri zen abian.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefona: 94 538 30 03 (Gizarte Zerbitzuen bitartez).

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Hileko bigarren eta laugarren astelehenetan 10:15etik 12:15era.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)

(¹) Datu ez eskuragarria.



BUSTURIALDEKO GIZARTE ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.

Helbidea: Alondegia, 6 (48300 Gernika-Lumo)

Telefonoa: 94 625 51 22

Udalerriak: Ajangiz, Arratzu, Busturia, Ea, Elantxobe, Ereño, Errigoiti, Forua, Gaategiz Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Nabarniz, Sukarrieta.

⊕ Programaren izena: **EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO AHOALKULARITZA JURIDIKOA**

⊕ Helburu orokorrak eta garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Emakumeei aholkularitza juridikoa eskaini, laguntzak jasotzeko eta ofiziozko profesionalak (abokatuak, prokuradoreak) izendatzeko egin beharreko izapideen berri emanez.
- Prozesu-izapideen jarraipena.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Busturialdeko Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako emakumeei zuzendua.

⊕ Kudeaketa-mota: Pertsona fisiko bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 20 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Abokatu 1.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 1996. urteko urtarrilean ekin zion jarduerari.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 946 25 51 22.

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Astearteetan eta ostiraletan, 10:30etik 13:00etara.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)

(¹) Datu ez eskuragarria.



ENKARTERRIKO UDALERRIEN MANKOMUNITATEA

Enkarterriko Udalerrien Mankomunitatea.

Helbidea: La Inmaculada auzoa, 15 (48850 Aranguren-Zalla)

Telefonoa: 946 67 18 50

Udalerriak: Alonsotegi, Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Güeñes, Karrantza Harana/Valle de Carranza, Lanestosa, Sopuerta, Trucios-Turtzioz, Zalla.

***Oharra: 2023ko urtarriletik uztaiera emandako zerbitzua.**

⌘ Programaren izena: **AHOLKULARITZA JURIDIKOKO ZERBITZUA**

⌘ Helburu orokorrak:

- Familia Zuzenbidearekin, Genero Indarkeriarekin eta Sexu Erasoekin lotutako gaietan emakumei doako aholkularitza juridikoa ematea.
- Oro har, orientazio juridikoa ematea, indarkeria-, ugalketa-, lan-, lege-, ezkontza- eta abar-kasuetan jarraitu beharreko prozedura gomendatuei buruzko aholkularitza orokorra eta pertsonalizatua emanez.

⌘ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Emakumearekin eta zuzenbidearekin zerikusia duen edozein gairi buruzko informazioa eta aholkularitza ematea, hainbat espezialitate barne hartuta: familia, etxeko indarkeria, fiskala, gizarte-segurantza, lan-segurantza, oinordetzak, beste batzuk.

⌘ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Enkarterriko Mankomunitateko emakumeak.

⌘ **Kudeaketa-mota:** Bi modalitate bateratzen ditu, zerbitzua ematen den bi egoitzen arabera: hitzarmena erakundearekin eta pertsona fisikoa kontratatzea.

⌘ **Orduak/hilean:** Balmasedan 12 ordu hilean; Zallan, eskariaren arabera.

⌘ **Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua:** 2 abokatu (1 Balmasedan eta 1 Zallan).

⌘ **Beste zenbait datu interesgarri:** 2022ko urtarrilean, Mankomunitateak zerbitzu horri ekin zion berriro, lehenago ere eskaini baitzuen 2013tik 2017ra bitartean. Arreta Balmasedan eta Zallan ematen da, eta orain arte indarrean zegoen egoerari jarraipena ematen zaio, bi udalerriek baitzeukaten prestazio hori, udalek kudeatuta.

⌘ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa:

- Balmaseda: 946 10 30 99 telefonoan, Balmasedako Emakumearen Etxean edo posta elektronikoki bidez (mujer@balmaseda.net) eskatzen den aurretiko hitzorduarekin lan egiten da. OGZak deribatuz ere sartzten da.
- Zalla: OGZen bidez (946 67 18 49) hartutako alde aurreko hitzorduarekin lan egiten da; hitzorduak eskariaren arabera ezartzen dira.

⌘ Arreta egunak eta ordutegia:

- Balmaseda: aste bat goizez (astelehenetan 09:30etatik 12:30etara) eta beste bat arratsaldean (astearteetan 16:30etatik 19:30etara)
- Zalla: Hitzorduan hitzartutako ordutegian, oro har hileko lehen eta hirugarren ostegunetan izaten dira, 10:00etatik 13:00etara.



Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea*	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa**	Sexu- indarkeria
	30	30	100,0	10	1	0

*Datuak Zallako udalerrian kokatutako zerbitzuari buruzkoak dira.

* Kasu berriak, 2; aurreko kasuak, 8.

** Kasu berria.



DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOA

Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa.

Helbidea: Galtzaretas eraikina. Bruno Maurizio Zabala kalea, 9 (48200 Durango)

Telefonia: 94 620 04 92

Udalerrak: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Otxandio, Zaldibar.

Programaren izena: DURANGOKO MERINALDEAREN AMANKOMUNAZGOKO GIZARTE-ZERBITZUEN ERABILTZALEEI FAMILIA-ZUZENBIDEAREN ARLOAN AHOHKULARITZA JURIDIKOA EMATEKO ZERBITZUA

Helburu orokorrak: Aholkularitza juridikoa ematea familia-zuzenbideko alorrean, edota tratu txarretako edota sexu-erasoetako kasuen inguruan.

Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Informazioa, aholkularitza, akonpainamendua eta laguntza juridikoa ematea, lehenetsuna emanez tratu txarren edota sexu-erasoen inguruko informazio, orientazio eta aholkularitza guztiari.
- Banantze edota dibortzio prozesuekin zerikusia duten gaien inguruko informazioa ematea.
- Doako laguntza juridikoko eskubideari buruzko informazioa ematea, hala dagokion kasuetan.
- Premiazko egoeretan, familiako indarkeria egoeretatik ondorioztatzen ohi direnak, banantzearen edo dibortzioaren aurreko premiazko neurriak ere izapidetzen dira.

Zein kolektibori zuzentzen zaion: Familia haustura prozesuetan edota tratu txar, eraso eta abusu kasuetan dauden Durangoko Merinaldeko Amanomunazgoa osatzen duten udalerrietako emakume eta familiei.

Kudeaketa-mota: Pertsona fisiko bat kontratatuta.

Orduak/hilean: 24 ordu hilean.

Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Zuzenbidean lizentziatutako pertsona 1.

Beste zenbait datu interesgarri: 2006. urteko abenduan ekin zion jarduerari.

Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonia: 94 620 04 92 / 688 65 36 94.

Arreta egunak eta ordutegia: astearteetan, 09:30etik 13:30era eta 15:00etatik 17:00etara. Aldez aurreko hitzorduarekin lan egiten da. Hala ere, kontutan hartu behar da aldez aurretik kasuari dagokion gizarte langilearen arreta jasoko dela, eta berak kasua informe batekin batera zerbitzu juridikora deribatuko duela.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Gutzizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)

(¹) Datu ez eskuragarria.



LEA-ARTIBAI AMANKOMUNAZGOA

Lea-Artibai Amankomunazgoa. Gizarte Zerbitzuak.

Helbidea: Patrokua Jauregia. Xemein Etorbidea, 13 - Behea (48270 Markina-Xemein)

Telefona: 94 616 85 58

Udalerriak: Berriatua, Etxebarria, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Ziortza-Bolibar.

⌘ Programaren izena: **FAMILIA AHOHKULARITZA JURIDIKOKO ZERBITZUA**

⌘ Helburu orokorrak eta garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Familia zuzenbide alorrean gai juridikoen inguruko informazioa eta aholkularitza ematea, banaketen, dibortzioen, guraso-ahalen, zaintza partekatuen, epaien egikaritzeen, adingabekoen babesaren, gazteen eta etxebizitzaren alorretan.
- Larrialdiko kasuetan, ezkonduetako bikotearen banaketa prozedura hasi aurretiko behin-behineko neurrien idazketari buruzko informazioa eta orientazioa ematea.
- Gatazka egoerak saihestu edo arintzeko zerbitzu espezializatuak jasotzea erraztea.
- Abokaturik esleituta ez dagoen kasuetan eta esleipen hori gertatu ezin daitekeenean, epaitegietan aurkeztu beharreko salaketak eta/edo errekurtsioak idazteko informazioa eta orientazioa ematea.
- Doako Justiziarri buruzko informazioa ematea eta hori izapidetzea.
- Bizilagunek beraien inguruan normaltasunez jardutea eragozten duten bestelako arazo juridikoei buruzko aholkularitza ematea, gizarte arazoak izan daitezkeenak, besteak beste kaleratzeak, familia zuzenbidearekin lotutako erreklamazio judizial eta administratiboak, prestazio ekonomikoak jasotzea, eta abar, eta nagusiki babes neurriak.
- Biktimak Lea Artibai Amankomunazgoaren harrera pisuan sartzeko Sarbide Batzordean parte hartzea.
- Oinarrizko Babeseko sistema publikoan sartzeko bizilagunek duten eskubide eta baldintzei buruzko informazioa eta aholkularitza ematea.
- Kode Zibilarekin bat eginez, ezgaitze prozedura hasi dezaketen familiako kideei ezgaitasun eta tutoretza funtzioak egikaritzean hasi dezaketen prozedurari buruzko informazioa eta aholkularitza ematea.
- Gizarte esku hartzea jasotzen duten pertsonen zigor egoerei buruzko informazioa eta aholkularitza ematea.
- Bitartekaritza lanak egitea familiako gatazkaren parte diren pertsonen artean elkarriketa errazteko eta konpromisoak sortzeko eta banaketa prozesuetan baterako erabakiak hartzea erraztea, adingabekoek, pertsona nagusiek, desgaitasuna dutenek eta abarrek behar duten arretari buruz familiakoek iritzi ezberdinak dituztenean.

⌘ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Lea-Artibai Amankomunazgoa osatzen duten udalerrietako familia, emakume eta gizonei zuzendua.



⊕ Kudeaketa-mota: Pertsona fisiko bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 40 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Abokatu 1.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 1998ko otsailean jarri zen abian.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 946 16 85 58 (Lea-Artibai Amankomunazgoa);
946 83 36 71 (Ondarroa); 946 16 90 27 (Markina-Xemein); 946 03 41 00 (Lekeitio).

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Ostiraletan 10:00etatik 14:00etara Lekeitio; asteazkenetan
10:00etatik 12:00etara Markina-Xemeinen; eta astelehenetan 10:00etatik 14:00etara
Ondarroan.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Gutzizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa**	Sexu- indarkeria***
	128	109	85,2	13	2	2

* Kasu berriak, 12; aurreko kasuak, 1.

** Kasu berriak.

*** Kasu berriak.



LEA IBARRAKO UDAL MANKOMUNAZGOA

Lea Ibarako Udal Mankomunazgoa.
Helbidea: Elizaldea-Eguen, 3 (48289 Gizaburuaga)
Telefona: 94 684 29 63
Udalerriak: Amoroto, Aulesti, Gizaburuaga, Mendexa, Munitibar.

⊕ Programaren izena: **FAMILIENTZAKO AHOLKULARITZA JURIDIKOKO ZERBITZUA**

⊕ Helburu orokorrak:

- Aholkularitza juridikoa ematea. Lege-eskubideei buruzko informazioa eta orientazioa ematea.
- Emakumeen eskubideak bermatzea.
- Emakumeen babes-sarea bermatzea.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Prozesu judizialean aholkularitza ematea eta dagokion jarraipena egitea, prokuradoreekin eta abokatuekin harremanetan jarritz.
- Doako justizia eta ofiziozko profesionalak (abokatua eta prokuradorea) izapidetzea eskatzen laguntzea.
- Tratu txarren eta sexu-erasoen kasuen aurrean, salaketa jartzeko laguntza eta aholkularitza ematea, eta eman beharreko urratsei buruzko informazioa ematea.
- Eskualdeko gizarte-langileekin eta Mankomunazgoko Gizarte Zerbitzuekin koordinatzea.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Lea Ibarako Mankomunazgoa osatzen duten udalerrietako emakume, gizon eta familiei.

⊕ Kudeaketa-mota: Pertsona fisiko bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 10 ordu hilean (hauetariko bi kudeaketa eta koordinazio lanetara zuzenduak).

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Abokatu 1.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2003.urteko uztailean jarri zen abian.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefona: 946 84 29 63.

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Aldez aurreko hitzorduarekin lan egiten da eta hitzorduak eskaeraren eta erabiltzailearen beharren arabera ezartzen dira. Oro har, hileko lehen astelehenean izaten dira, 10:00etatik 14:00etara. Baina lehen esan bezala, malgutasuna dago, eta egun horretan ezin bada beste bat zehazten da.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	12	10	83,3	1	0	0

* Kasu berria.



GIZARTE ZERBITZUEN MUNGIALDE MANKOMUNITATEA

Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitatea.
Helbidea: Aita Elorriaga, 4 behea (48100 Mungia)
Telefona: 94 615 55 51
Udalerriak: Arrieta, Bakio, Gamiz-Fika, Laukiz, Meñaka, Mungia.

- ⊕ Programaren izena: **EMAKUMEENTZAKO AHOLKULARITZA JURIDIKOA**
- ⊕ Helburu orokorrak: Doako lege-aholkularitza ematea funtsean familia-zuzenbidearekin eta genero-indarkeriarekin eta sexu-erasoekin zerikusia duten izapideetan.
- ⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena: Lege-aholkularitza ematea.
- ⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Emakumeei zuzendua (bereziki, familia-zuzenbidearekin eta erasoekin lotuta dauden gaietarako).
- ⊕ Kudeaketa-mota: Erakunde batekin hitzarmena.
- ⊕ Orduak/hilean: 5,5 ordu hilean.
- ⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Abokatu bi.
- ⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2000. urtean ekin zion jarduerari.
- ⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefona: 94 615 55 51 (zuzenean OGZetara deituz sartzen da).
- ⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Arreta txandakako astelehenetan ematen da, 11:00etatik 13:40ra lehen astelehenean, eta 09:00etatik 11:40ra hurrengoan.

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Gutzizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	32	32	100,0	4	0	0

* Kasu berriak.



URIBE KOSTAKO ZERBITZU MANKOMUNITATEA

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea.
Helbidea: Gatzarriñe, 4 (48600 Sopela)
Telefonoa: 946 76 26 74
Udalerriak: Barrika, Berango, Gorniz, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz.

⊕ Programaren izena: **AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUA**

⊕ **Helburu orokorrak:** Krisia gertatzen den unearen, hots, informazio juridikoaren premia sortzen den unearen eta legez ofiziozko abokatuia izendatzeko aurreikusten den unearen artean dagoen hutsunea estaltzea: prozedura judizialaren aurreko denbora-espazioan jardutea, informazioa eta aholkularitza emanez, aurretiazko jarduketek eta erabakiek pertsonarentzako kalteak ekar ez ditzaten. Izan ere, askotan, behin prozedura judiziala hastean oso zaila da aurretik egindako jarduketa kaltegarri horiek zuzentzea edo aldatzea.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Familia-krisian dauden emakumeei beharrezkoa den aholkularitza ematea.
- Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuek eskatzen duten aholkularitza ematea.
- Hala eskatzen duten emakumeei doako justizia izapidetzen laguntzea: inprimaki egokiak ematea, aurkeztu behar duten dokumentazioa egiaztatzea eta, ezin izango balu, dokumentazioa Epaitegian aurkeztea, doako justiziaren espedientearen ebazpena jasotzea eta eskatzaileari entregatzea.

⊕ **Zein kolektibori zuzentzen zaion:** biztanleria oro hari.

⊕ **Kudeaketa-mota:** Erakunde bat kontratatuta.

⊕ **Orduak/hilean:** 16 ordu hilean.

⊕ **Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua:** Zuzenbidean lizentziatutako pertsona 1.

⊕ **Beste zenbait datu interesgarri:** 1990. urteko irailean jarri zen abian zerbitzu hau.

⊕ **Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa:** 946 76 26 74.

⊕ **Arreta egunak eta ordutegia:** Astearteetan 16:00etatik 20:00etara. **Arreta Lizarre 5ean ematen da.**

Aholkularitza juridikoko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	46	38	82,6	2	0	0

* Kasu berriak.



Jarraian urteroko dokumentu honen aurreko argitaraldiarekin alderatuta Bizkaiko Lurralde Historikoan Aholkularitza Juridikoko baliabideetan eman diren aldaketa nagusiak batzen dira.

ALDAKETAK 2023

Ez da aldaketarik egon dokumentu honen aurreko edizioarekiko




3. LAGUNTZA PSIKOLOGIKOKO BALIABIDEAK



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
BIZKAIKO UDALERRI ETA MANKOMUNITATEAK



BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA
LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA 2023





BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.
Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua.
Helbidea: Urkixo Zumarkalea, 4 (48008 Bilbo)
Telefona: 94 406 66 60

⊕ Programaren izena: **EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEI LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA EMATEKO ZERBITZUA (ESNATU)**

⊕ **Helburu orokorrak:** Laguntza psikologikoa emateko zerbitzua programa ezberdinetan garatzen da, laguntzen dituen kolektiboen eta horiek dituzten arazoaren arabera:

- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei laguntza psikologikoa emateko programa. Norentzat:
 - Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktima zuzenak, Haur Zerbitzuak babesten ez dituen biktima adingabeak barne.
 - Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren zeharkako biktimak: biktimak babesten dituzten pertsonak, bai eta haien gertuko edo ingurune afektiboko pertsonak ere, baldin eta emakumea atsekabetezko asmoz egindako indarkeria pairatzen badute.
 - Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktima diren gizonak.
- Sexu-indarkeriaren biktimei laguntza psikologikoa emateko programa. Norentzat:
 - Sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeak.
 - Haurren Zerbitzuak babesten ez dituen sexu-indarkeriaren biktima diren haur eta nerabeak.
 - Biktimen senide eta lagunak.
- Tratu txarren edo sexu-askatasunaren aurkako delituen egileei laguntza psikologikoa emateko programa. Norentzat:
 - Tratu txarrak eragiten dituzten pertsonak
 - Sexu-askatasunaren aurkako egintzen egileak

⊕ **Programaren edukia:** Esku-hartzea honetan datza:

- Diagnostikoa eta balorazioa.
- Arreta psikologiko indibidualizatua: onuradunei laguntza psikologikoa eta psikoterapia emateko tratamendua.
- Taldeko laguntza psikologikoa, tratu txarren biktima helduentzako banakako terapiaren osagarri gisa.
- Artatutako kasuen jarraipena.
- Tratatutako kasuak ebaluatzea.

⊕ **Kudeaketa-mota**⁶: Hitzarmena Agintzari Kooperatibarekin.

⁶ 2023ko lehen hiruhilekoan zehar aurreko ekitaldietako kudeaketa motari eutsi zaio, eta Zutitu empresari esleitutako kontratazio bidez egin da.



⊕ **Orduak/astean:** 2023an zerbitzuak astean eskaintzen dituen 536 orduak modu honetan banatzen dira: 305 ordu Bilbon; Lea-Artibain 28 ordu; 21 ordu Enkarterriko Mankomunitatean; 14 ordu Nerbioi Eskualdean; 28 ordu Durangoko Merinaldeko Mankomunitatean; 14 ordu Busturialdeko Mankomunitatean; 21 ordu Arratiako Mankomunitatean; 35 ordu Portugaleten; 35 ordu Leioan; eta 35 ordu Getxon.

⊕ **Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua:** Koordinatzaile bat eta 19 psikoterapeuta.

⊕ **Beste zenbait datu interesgarri:**

- 1992an jarri zen abian zerbitzu hau.
- Dekretu honek arautzen du programa: 233/2007 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, abenduaren 10ekoa (249. zenbakidun BAOn argitaratua, 2007ko abenduaren 24an).
- Lehenik zerbitzua 2006. urtean Lea-Artibaiko Mankomunitatera deszentralizatzen da, 2009ko maiatzaz geroztik baita Enkarterriko Mankomunitatera ere; 2013. urteko ekainetik Nerbioi Eskualdera; 2014. urteko apiriletik Durangoko Merinaldeko Mankomunitatera; 2014ko maiatzetik Busturialdeko Eskualdera; eta 2015eko ekainetik Arratiako Mankomunitatera. 2023an hiru arreta-gune berri daude Portugaleten, Leioan eta Getxon.

Kasu bakoitzean, bakoitzari dagokion mankomunitatearen edo udalaren partaidetza izaten da; programaren eskura jartzen baitituzte zerbitzua emateko lokalak.

⊕ **Programan sartzeko modua:** Zuzena, 946 62 05 05 telefonora deituta.

⊕ **Arreta egunak eta ordutegia:**

- Bilbon: Astelehenetik ostegunera, 09:00etatik 18:00etara; ostiraletan, 08:00etatik 15:00etara. Abuztuan, 08:00etatik 15:00etara.
- Markina-Xemeinen: Astelehen, astearte, asteazken eta ostegunetan 08:00etatik 15:00etara.
- Zallan: Astearte eta ostegunetan, 08:00etatik 15:00etara.
- Ugao-Miraballesen: Asteazken eta ostegunetan, 08:00etatik 15:00etara.
- Durangon: Astelehenetik ostegunera, 08:00etatik 15:00etara; egun bateko ordutegia alda daiteke.
- Gernika-Lumon: Astearte eta asteazkenetan, 08:00etatik 15:00etara.
- Igorren: Astearte, asteazken eta ostegunetan 08:00etatik 15:00etara.
- Portugaleten: Astelehenetik ostegunera, 09:00etatik 18:00etara; ostiraletan, 09:00etatik 14:00etara.
- Leioan: Astelehenetik ostegunera, 09:00etatik 18:00etara; ostiraletan, 09:00etatik 14:00etara.
- Getxon: Astelehenetik ostegunera, 09:00etatik 18:00etara; ostiraletan, 09:00etatik 14:00etara.



PERTSONA HELDUAK			
Guztira PERTSONA HELDUAK 2022 <u>1.376 pertsona</u> 1.278 emakume (%97,1) 98 gizon (%2,9)	Zuzeneko biktimak	<u>TRATU TXARRENGATIK</u> 1.044 emakume ⁷ 31 gizon ⁸	<u>SEXU-INDARKERIA GATIK</u> 149 emakume ⁹ 1 gizon ¹⁰
	Tratu txarrak eragiten dituzten pertsonak	54 gizon ¹¹ 8 emakume ¹²	
	Zeharkako biktimak	77 emakume ¹³ 12 gizon ¹⁴	

ADINGABEAK			
Guztira ADINGABEAK 2022 <u>135 adingabe</u> 113 neska (%84,3) 22 mutil (%16,3)	134 Biktima (63 kasu berri) Erasotzaile 1	<u>ETXEKO TRATU TXARRENGATIK (kasu berriak)</u> 9 neska 8 mutil	<u>SEXU-ERASOENGATIK (kasu berriak)</u> 31 neska 0 mutil
		<u>BIKOTEKIDEAREN / BIKOTEKIDE OHIAREN TRATU TXARRENGATIK (kasu berriak)</u> 15 neska 0 mutil	

⁷ Kasu berriak 465, aurreko kasuak 579.

⁸ Kasu berriak 14, aurreko kasuak 17.

⁹ Kasu berriak 72, aurreko kasuak 77.

¹⁰ Kasu berria.

¹¹ Kasu berriak 30, aurreko kasuak 24.

¹² Kasu berriak 2, aurreko kasuak 6.

¹³ Kasu berriak 46, aurreko kasuak 31.

¹⁴ Kasu berriak 7, aurreko kasuak 5.



AMOREBIETA-ETXANOKO UDALA

Gizarte Ekintza eta Berdintasun Saila
Helbidea: Nafarroa, z.g. (48340 Amorebieta-Etxano)
Telefonoa: 94 630 01 90

⊕ Programaren izena: **EMAKUMEENTZAKO ARRETA PSIKOLOGIKORAKO ZERBITZUA**

⊕ Helburu orokorrak eta garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena: Erabiltzaileei laguntza psikologikoa ematea, gehienetan ezagutzaren eta portaeraren orientazio-terapien bidez eta, behar izanez gero, familiarekin esku-hartze - saioak eginez (ondorengo ahaideekin, bikote edo bikote ohiarekin,...).

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion:

- Amorebieta-Etxanoko emakumeak.
- Amorebieta-Etxanoko herritarrok oro har, gizonei ere ematen baitzaie arreta.

⊕ Kudeaketa-mota: Erakunde bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 40 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Psikologo bat.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2005. urteko ekainean jarri zen abian.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 946 30 01 90 (oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik, Ertzaintzatik edo osasun-esparrutik sartzen da).

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Ostegun eta ostiraletan 09:00etatik 14:00era.

Laguntza psikologikoa emateko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Gutzizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)

(¹) Datu ez eskuragarria.



BARAKALDOKO UDALA

Emakumearen Arloa. Berdintasun Saila.
Helbidea: Herriko Plaza, 1 (48901 Barakaldo)
Telefona: 94 478 94 35

⊕ Programaren izena: **GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEEI ETA HAIEN ARDURAPEAN DAUDEN MENPEKOEI LAGUNTZA PSIKOSOZIALA EMATEKO ZERBITZU INTEGRALA**

⊕ Helburu orokorrak eta garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena: Laguntza psikosoziala ematea genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei, honako helburu hauekin:

- Hausnarketarako eta orientaziorako gune bat eratzea, banakako, taldeko eta komunitateko esku-hartzeen bidez.
- Eremu psikosozialak, integrazio komunitarioarekin eta gizarte-harremanekin lotutakoak sustatzea eta indartzea, emakumeak bere autoestimua eta bere buruarekiko segurtasuna berreskura ditzan, eguneroko bizitzaren egoera ezberdinei aurre egiteko.
- Egoera pertsonala eta familiarra babestea, geldiaraztea eta aurre egiten laguntzea.
- Autoestimu pertsonala eta mendekotasunik eta suntsipenik gabeko harreman afektiboak garatzeko behar diren baliabideak ematea eta laguntzea.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion:

- Bikotekide edo bikotekide ohiarengandik tratatu txar fisiko, psikologiko, ekonomiko edota sexualeko egoerak jasaten dituzten edo jasan izan dituzten genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak. Azken batean, indarkeria fisiko eta psikologikoko ekintza guztiak, sexu-askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo askatasun-gabetze arbitrarioa barne.
- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeen ardurapean dauden eta indarkeria hori zuzenean edo zeharka jasan duten adingabeak.

Salbuespen bezala, eta kasu bakoitzaren aurretiko balioespenarekin, ustezko horietan aurkitzen ez diren emakumeek zerbitzu honen arreta psikologikoa jaso ahal izango dute Berdintasun Arloak horrela adierazten duenean.

⊕ Kudeaketa-mota: Erakunde bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 140 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Psikologo 2.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2005. urteko urtarrilean ekin zion jarduerari.



☎ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 944 78 94 35.

☎ Arreta egunak eta ordutegia: Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara.

Laguntza psikologikoa emateko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Gutzizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa**	Sexu-indarkeria***
	121	121	100,0	100	3	14

* Kasu berriak, 64; aurreko kasuak, 36.

** Kasu berriak, 2; aurreko kasuak, 1.

*** Kasu berriak, 8; aurreko kasuak, 6.



BASAURIKO UDALA

Berdintasun Arloa- Emakumeen Informazio Zentroa (EIZ).
Helbidea: Marienea eraikina. Kareaga Goikoa kalea, 54, 1. solairua (48970 Basauri)
Telefonoak: 94 612 41 07 (Berdintasun Arloa) / 94 612 41 01 (EIZ)

⊕ Programaren izena: **LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA**

⊕ Helburu orokorrak eta garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena: Aurrera egiteko zenbait gaitasun pertsonal eskuratzera eta indartzera orientatuta dago, eta xedetzat du krisialdi pertsonalean dauden emakumeen doikuntza edota egokitzapena sustatzea, nahiz ulermen eta lasaialdi emozionalerako espazio bat eskaintzea, zergatiak generoaren ikuspegi batetik aztertuz. Esku-hartzeak honako hauek hartzen ditu barruan:

- Banakako laguntza psikologikoa.
- Taldeko laguntza psikologikoa.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Emakumeak orokorrean eta, bereziki, indarkeria matxistaren biktima diren Basauriko emakumeak.

⊕ Kudeaketa-mota: Erakunde bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 140 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Psikologo 1.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri:

- 2001ean ekin zion jarduerari.
- Beste udalerrri batzuetatik datozen emakumeak artatzen dira, eta, ondoren, baliabide egokienetara eta hurbilekoetara bideratzen dira.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 946 12 41 01.

⊕ Arreta egunak eta ordutegia:

- Banakako laguntza: aurretiazko hitzorduekin lan egiten da, astelehenetik ostiralera.
- Taldeko laguntza: taldeak beharren arabera eratzen dira.

Laguntza psikologikoa emateko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa**	Sexu-indarkeria***
	73	73	100,0	31	6	1

* Kasu berriak, 12; aurreko kasuak, 19.

** Kasu berriak, 2; aurreko kasuak, 4.

*** Aurreko kasua.



BILBOKO UDALA

Berdintasun Saila.

Helbidea: Venezuela plaza, 2 - 4. solairua - Aznar eraikina (48001 Bilbo)

Telefonoa: 94 420 48 38

Bilboko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiak laguntza psikologikoa emateko duen programara bideratzen ditu tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan eta laguntza psikologikoa behar duten kasuak. Programa horretatik berehalakotasunarekin laguntza ematerik ez legokeenean bakarrik, Udalak modulu psiko sozialetara bidaliko ditu kasu horiek (Auzolan, Deusto - San Inazio eta Errekalde). Izan ere, Udalak hitzarmen bat du sinatuta modulu horiekin, arazo psikologiko ezberdinak dituzten emakumeei laguntza psikologikoko programan arreta emateko (gorabehera depresioak, antsietate-desorekak, buruko osasuna, bikote-arazoak, banantzeak eta tratu txarrak). Horrela, “terapia laguntzaileak” edo “terapia laburrak” eskaintzen zaizkie, banakako, bikoteko edo taldeko esku-hartzerekin, kasuaren ezaugarriak zein diren aintzat hartuta. Salbuespenez, udalak balora dezake kasuren batek modulu psiko sozialetara bideratzeko egokitasuna, Foru Aldundiko programan ematen den laguntza psikologikoan atzerapenik ez egotearren.

Laguntza psikologikoa emateko programa 2022. urtea

2022an, Bilboko Udaleko Emakumearen Zerbitzura jo zuten eta laguntza psikologikoa behar izan zuten indarkeriaren biktimak ziren emakumeen kasuak, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza psikologikoko programara bideratu egin dira nagusiki, eta zenbait kasuetan, modulu psiko sozialetara.

ERANDIOKO UDALA

Enplegua, Sustapen Ekonomikoa, Tokiko Garapena, Berdintasuna eta Merkataritza Saila.
Helbidea: Bekoa Ikastetxea. Desanexio kalea, 4. Altzaga. (48950 Erandio)
Telefona: 94 417 56 16

⊕ Programaren izena: **EMAKUMEENTZAKO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOKO ZERBITZUA**

⊕ Helburu orokorrak:

- Indarkeria egoeran bizi diren Erandioko emakumeen jabekuntzan eragiten duen esku-hartze terapeutikoa garatzea norberaren ezagutza eta tratu onak bultzatuz.
- Erandioko udalerriko populazioan arazo honen errealitatea ezagutzera emango duen datu estatistikoen datu-bilketa egitea.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Banakako eta taldeko esku-hartze psikologikoaren bidez indarkeriari aurre egiten dioten emakumeak laguntzeko programa, jabekuntza eta feminismoa oinarri izanik.
- Emakumeen gaitasun osasuntsuak antzeman eta esku-hartzea horien ezagutza eta loturara zuzendu nahi da trebetasun pertsonalak indartu ahal izateko.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.

⊕ Kudeaketa-mota: Pertsona fisiko bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 100 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: 3 psikologo.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2018ko ekainean jarri zen abian.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 679 77 05 59.

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Zerbitzuaren arreta-ordutegia zabala da. Hitzorduak emakume erabiltzaileen eskariaren arabera ezartzen dira, honako ordu-tarte honetan: astelehenetan, asteazkenetan eta ostiraletan 08:00etatik 20:00etara. **Arreta emateko tokia Altzaga eta Astrabudua auzoen artean txandakatzen da.**

Laguntza psikologikoa emateko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)

(¹) Datu ez eskuragarria.



ERMUAKO UDALA

Berdintasunerako Unitate Administratiboa.

Helbidea: Ermuko Emakumeen Topalekua. Izelaieta kalea, 12 (48260 Ermua)

Telefonoa: 94 317 10 30

⊕ Programaren izena: **LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA**

⊕ **Helburu orokorrak:** Laguntza espezializatua ematea bazterkeri eta babesgabetasun egoeren aurrean, bereziki emakumeenganako tratu txarrekin eta sexu-erasoekin, dibortzioekin, banantzeekin, familia-gatazkekin edo bikote-gatazkekin eta abarrekin lotuta daudenean.

⊕ **Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:**

- Emakumeei (eta beren familiei) banakako laguntza/arreta ematea, beren egoera pertsonaletik eta genero-egoeratik ondorioztatutako arazoak dituztenean, bikote arteko gatazkekin, tratu txarrekin, sexu-erasoekin, lan-arloko diskriminazio-egoerekin, etxeko diskriminazio-egoerekin, eta abarrekin zerikusia duten egoeratan daudenean.
- Emakumeei laguntza emozionala ematea, genero-desberdintasunak eragindako bizi-egoerei aurre egiteko. Batez ere, indarkeriarako zaurgarritasun handiagoa dagoen emakumeen kasuetan.
- Emakumeei (eta beren familiei) taldeko laguntza ematea, horiek dituzten arazoek laguntza psiko sozialeko esku-hartze labur bat aholkatzen dutenean, ondorengo gai hauekin lotutako egoeren aurrean: banantzeak eta dibortzioak, izatezko bikoteen gatazkak, familia, guraso bakarreko familiak, arazo sozialak eta bazterkeria, tratu txarrak eta sexu-erasoak, salaketak eta epaiketak, autoestimua baxuak, trauma ondorengo estresa, gatazka psikosozialak...

⊕ **Zein kolektibori zuzentzen zaion:** Emakumeak.

⊕ **Kudeaketa-mota:** Pertsona fisiko bat kontratatuta.

⊕ **Orduak/hilean:** 9-12 ordu hilean gutxi gorabehera.

⊕ **Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua:** Psikologo 1.

⊕ **Beste zenbait datu interesgarri:** 2004. urteko irailean jarri zen abian.

⊕ **Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa:** 943 17 10 30.

⊕ **Arreta egunak eta ordutegia:** Normalean astearteetan, goizeko eta arratsaldeko ordutegia txandakatzen emakumeei sarbidea errazteko.

Laguntza psikologikoa emateko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria***
	50	50	100,0	28	0	1

* Kasu berriak, 14; aurreko kasuak, 14.

*** Kasu berria.



GALDAKAOKO UDALA

Gizarte Ongizate Saila.

Helbidea: Pontzi Zabala, 3A Beheko solairua -Ardanza Lehendakariaren parkea- (48960 Galdakao)

Telefona: 94 401 05 45

⊕ Programaren izena: **EMAKUMEARI LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA EMATEKO ZERBITZUA**

⊕ Helburu orokorrak: Banakako laguntza psikologikoa eskaintzea. Bertan sartzen dira: ebaluazioa, diagnostia eta tratamendu psikologikoa. Antsietateari eta estresari aurre egin ahal izateko alderdi psikoedukatiboak lantzea.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena: Beste batzuen artean:

- Alderdi psikohezigarriren edo psikoterapeutikoren bat ukitzea behar duten bizitzako egoera puntualei aurre egiteko orientazioa ematea: familiako arazoak, bikote barruko zailtasunak, “habia hutsaren sindromea”, autoestimu-defizita, gogo-aldartearen arazoak, isolamendu soziala, doluak edo galerak konplikazioekin, eta abar.
- Emakumeek sexuarekin, harremanarekin eta elkarbizitzarekin izan ditzaketen arazoak lantzea. Sexuaren eta afektibitatearen inguruko alderdi psikohezigarriei buruz informatzea.
- Kasuan kasu beharrezkoa denean, Emakumeen Lege Aholkularitza, Familia Bitartekaritza Zerbitzua, EISE eta abar bezalako udal zerbitzuen lana osatzea.
- Tratu txar, eraso edo abusu fisiko, psikologiko nahiz sexualetako egoeretatik ondorioztaturiko arazoentzako berariazko laguntza psikologikoa eskaintzea.
- Laguntza emozionala eta orientazioa ematea buruko gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak, agureak eta bestelakoak beren ardurapean dituzten emakumeei (erretzearen sindromea edo “burn out” sindromea tratatzea).
- Laguntza emozionala, afektiboa eta psikologikoa ematea bikote-haustura egoeretan dauden emakumeei (banantzeak, dibortzioak,...).
- Emakumeen autonomia pertsonala sustatzea, mendekotasun afektiboko edota emozionaleko egoerei aurre egin ahal izateko baliabide psikologikoez hornituz.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Galdakaon erroldatutako emakumeei zuzendua.

⊕ Kudeaketa-mota: Pertsona fisiko bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 140 ordu hilean. Arreta zuzena 100 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Psikologo 1.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2000. urteko abenduan ekin zion jarduerari.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefona: 944 01 05 45 (zuzen eta gizarte zerbitzuen bitartezko deribazioa).



⌘ Arreta egunak eta ordutegia: Astelehen, astearte, eta ostegunetan 08:30etik 14:00etara, asteazkenetan 15:00etatik 19:00etara eta ostiraletan 08:30etik 13:00etara.

Laguntza psikologikoa emateko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa**	Sexu-indarkeria***
	173	173	100,0	65	19	3

* Kasu berriak, 44; aurreko kasuak, 21.

** Kasu berriak, 13; aurreko kasuak, 6.

*** Kasu berriak.



GETXOKO UDALA

Gizarte Ongizate Saila.
Helbidea: Urgull kalea, z.g. – 1. solairua (48991 Getxo)
Telefona: 94 466 01 01

⊕ Programaren izena: **ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALEKO ZERBITZUA (EPZ)**

⊕ Helburu orokorrak eta garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena: Esku-hartzeak bi ardatz ditu: banakako laguntza eta familiako laguntza (arazo bera duten osatutako autolaguntza - taldeak). Esku-hartzearen helburuak honako hauek dira:

- Garapen pertsonala eta gizarte- nahiz familia-garapena zailtzen edo oztopatzen duten gatazka- eta krisi-esperientziak nahiz egoera emozionalak lantzea eta konpontzea sustatzea.
- Xede diren pertsonen baliabideak mobilizatzea, gatazkek eta krisiak kontrolatzeko eta horiei heltzeko ahalmenak garatuz, autonomia areagotzeko eta eremu pertsonal, familiar eta sozialean txertatzea ahalbidetuz.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Biztanleria guztiari. Programa hau Gizarte eta Hezkuntzako arloetan Esku-hartzeko Taldearen barruan kokatzen da. Talde horren berariazko hartzaileak testuinguru psiko sozialetik landu daitezkeen zailtasun-, gatazka- edo krisi-egoeretan dauden nerabeak, helduak eta familiak dira. Hori horrela, ez da berariaz genero-indarkeriaren ondoriozko arazoak dituztenetara zuzentzen.

⊕ Kudeaketa-mota: Erakunde bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 120 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: 2 psikologo.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 1995. urtean ekin zion jarduerari.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefona: 94 466 01 32.

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Getxoko arreta ordutegia zabala da. Hitzorduak eskariaren arabera ezartzen dira hurrengo ordutegi honetan: astelehenetik ostegunera 08:00etatik 18:00etara eta ostiraletan 08:00etatik 14:30era.

Laguntza psikologikoa emateko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Gutzizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	84	68	81,0	14	0	0

* Kasu berriak, 5; aurreko kasuak, 9.



LEIOAKO UDALA

Gizarte Zerbitzuen Saila.
Helbidea: Inaurratzaga, 1 beheko solairua (48940 Leioa)
Telefona: 94 480 13 36

⌘ Programaren izena: **LAGUNTZA PSIKOLOGIKOKO ZERBITZU INTEGRATUA**

Zerbitzuak bere denbora (150 ordu hilabeteko) banatzen du hurren nahiz zailtasunak dituzten emakumeen arretaren artean. Emakumeei dagokienez, zerbitzuaren ezaugarriak honako hauek dira:

⌘ Helburu orokorrak:

- Elkar entzuteko eta topatzeko espazio bat eskaintzea, erabiltzaileek bizi dituzten krisi-egoerek edo zailtasunek eragiten dituzten antsietatea eta angustia askatu eta bideratu ahal izateko.
- Erabiltzaileei krisialdi eta zailtasun horietan eragiten duten faktoreak identifikatzen laguntzea, gatazken inguruan egiten duten egozpen pertsonal, bikoteari dagokiona nahiz familiarra gainditu ahal izateko.
- Erabiltzaileek beren egoerari aurre egiteko har ditzaketen soluzioak ebaluatzea eta horiek aktibatzea, eguneroko baliabideetatik abiatuta nahiz erkidegoan dauden baliabideetatik abiatuta.
- Familiaren testuinguruan elkarbizitza hobetuko duten harreman funtzionalak bultzatzea.

⌘ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Arlo pertsonala: orientazioa gatazken, bilakaera-aldaketen, trantsizio-krisien, harreman-zailtasunen, komunikazio-zailtasunen eta sustapen sozio komunitarioaren aurrean.
- Bikotearen arloa: bikote-harremanaren historia prestatzea, harremanak hobetzea eta elkar ulertzea, akordioak birnegoziatzea, laguntza banantze- edota dibortzio-egoeretan.
- Arlo familiarra: gatazken ebazpena gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetan, eta laguntza familiaren bizi-zikloaren fase eta krisialdi ezberdinetan.

⌘ **Zein kolektibori zuzentzen zaion:** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileak diren emakumeei (eta haiekin bizi diren senitartekoei), edo etxean tratu txarrak jaso duten emakumeei.

⌘ **Kudeaketa-mota:** Erakunde bat kontratatuta.

⌘ **Orduak/hilean:** 75 ordu hilean.

⌘ **Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua:** 2 Psikologo.

⌘ **Beste zenbait datu interesgarri:** 1995. urteko maiatzean ekin zion jarduerari. 2018ko uztailetik esku-hartze psikosozial eta gizarte- eta hezkuntza- esku-hartze taldearen barnean.



☎ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 94 480 13 36 (zerbitzura oinarritzko gizarte-zerbitzuetatik iristen dira).

☎ Arreta egunak eta ordutegia: Astelehen eta ostegunetan 09:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara, astearte eta asteazkenetan 09:00etatik 15:30era eta ostiraletan 09:00etatik 15:00etara. **Arreta Sabino Arana 67ko behe solairuan ematen da.**

Laguntza psikologikoa emateko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa**	Sexu-indarkeria***
	59	47	79,7	9	1	1

* Kasu berriak, 6; aurreko kasuak, 3.

** Kasu berria.

*** Kasu berria.



MUSKIZKO UDALA

Gizarte Ekintza Saila. Berdintasuna, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Arloa.
Helbidea: San Juan, 2 – 1. solairua (48550 Muskiz)
Telefona: 94 670 99 36

✚ Programaren izena: **ORIENTAZIO ETA ARRETA PSIKOSOZIALEKO ZERBITZUA**

✚ Helburu orokorrak: Muskizko Udaleko Laguntza Psikologikoa eta Orientazioa emateko Zerbitzua Udaleko Gizarte Ekintza Sailaren barruan kokatzen den baliabide bat da. Hainbat zailtasun bizi dituzten udalerriko banakako nahiz familiei zuzentzen zaie: orientazio hutsetik landu daitekeen harreman-krisietatik hasi eta ikuspegi sistematiko batetik esku-hartze intentsiboagoak behar dituzten arazo arriskutsuetara arte.

✚ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen lana osatzea, horiek lantzen dituzten egoerei heldzerakoan, laguntza psiko soziala emanaz eta faktore emozionaleri nahiz horietara lotutako bizi-esperientziei so eginez, horiek eusteko eta ebazteko baliabideak erabiliz.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako profesionaleri laguntzea, esku-hartzearen xede diren kasuak kontrastatuz eta gainbegiratzuz.

✚ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Muskizko pertsona eta familiei.

✚ Kudeaketa-mota: Erakunde bat kontratatuta.

✚ Orduak/hilean: 64 ordu hilean.

✚ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: 2 psikologo.

✚ Beste zenbait datu interesgarri: 2005. urteko urtarrilean ekin zion jarduerari.

✚ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefona: 639 85 55 36.

✚ Arreta egunak eta ordutegia: Astearte eta asteazkenetan 10:00etatik 18:00etara.

Laguntza psikologikoa emateko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Gutzizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)

(¹) Datu ez eskuragarria.



OROZKOKO UDALA

Gizarte Ongizate Saila.
Helbidea: Zubiaur enparantza, z.g. (48410 Orozko)
Telefona: 94 633 96 33

⊕ Programaren izena: **PROGRAMA PSIKOSOZIALA**

⊕ Helburu orokorrak eta garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena: Laguntza, aholkularitza eta konpainia psikologikorako udal-baliabidea, bizi-zikloaren garaietan zailtasunak izan ditzaketen udalerriko biztanle guztiei zuzendua.

Zerbitzuak banakako zein familiako arreta eskaintzen du, ongizate-maila handiagoak sustatzeko helburuarekin. Kasu bakoitzean arreta pertsonalizatua eskaintzen da, kasu bakoitza berezia dela ulertuta, eta, beraz, premia espezifikoak izan ditzakeela kontuan hartuta.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Orozkoko biztanleria oro hari.

⊕ Kudeaketa-mota: Erakunde bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 48 ordu hilean (hauetariko hiru kudeaketa eta koordinazio lanetara zuzenduak).

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: psikologo 1.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2017. urtean ekin zion jarduerari.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefona: 688 76 91 23.

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Asteazkenetan 15:00etatik 18:00etara, ostegunetan 09:00etatik 15:00etara eta ostiraletan 09:00etatik 12:00etara.

Laguntza psikologikoa emateko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa**	Sexu-indarkeria
	28	22	78,6	2	1	0

* Aurreko kasuak.

** Aurreko kasua.



PORTUGALETEKO UDALA

Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Saila.
Helbidea: Solar plaza z.g. 1. solairua (48920 Portugalete)
Telefona: 94 472 92 12 / 94 472 91 68

⊕ Programaren izena: **ESKUARTZE PSIKOSOZIALEKO ZERBITZUA**

⊕ Helburu orokorrak:

- Genero-arrazoien ondoriozko desberdintasun sozialek eragindako zailtasun egoeretan dauden emakumeei laguntza ematea.
- Baliabide normalizatueterako sarbidea erraztea.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen lana osotu babesgabetasun, menpekotasun eta bazterketa sozialeko arriskuko egoeretan eskuartze psikosoziala eskaintzen.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik bideratutako egoera desberdinen balorazio diagnostikoak eta iragarpenak egitea.
- Xede horrekin bideratutako espedientei laguntza psiko soziala ematea.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako profesionali aholkularitza eta orientazioa eskaintzea.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Biztanleria oro hari.

⊕ Kudeaketa-mota: Erakunde bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 216 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: 3 psikologo.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2002. urtean genero-arrazoien ondoriozko desberdintasun sozialek eragindako zailtasun egoeretan dauden emakumeei zuzendutako programa bezala martxan jarri zen. 2013. urtean programa hedatzen da eta biztanleria osoari eskaintzen dio arreta.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 94 472 92 12 (zerbitzura oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik iristen dira).

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Astelehen, astearte eta ostegunetan 09:30etik 19:00etara. Asteazken eta ostiraletan 09:00etatik 15:00etara.

Laguntza psikologikoa emateko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Gutzizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa**	Sexu-indarkeria***
	121	101	83,5	28	15	12

* Kasu berriak, 12; aurreko kasuak, 16.

** Kasu berriak, 10; aurreko kasuak, 5.

*** Kasu berriak, 5; aurreko kasuak, 7.



SANTURTZIKO UDALA

Gizarte Ekintza Saila. Emakume eta Berdintasun Zerbitzua.
Helbidea: Sabino Arana, 3 – Antzinako nautika-eskolako egoitza (48980 Santurtzi)
Telefonoa: 94 420 58 00 – 321 luzapena.

⊕ Programaren izena: **LAGUNTZA PSIKOLOGIKORAKO ZERBITZUA**

⊕ Helburu orokorrak: Banakako laguntza terapeutikoa ematea familia eremuan indarkeriaren biktima diren emakumeei.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena: Ebaluazioa egiten da eta, ondoren, erabiltzailearen maila psikologikoa berreskuratzen zuzendutako ekintzak eta esku-hartzeak planifikatzen dira. Horretarako, laguntza, aholkularitza psikologikoa eta banakako esku-hartze terapeutikoa erabiltzen dira.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Genero indarkeriaren, etxeko indarkeriaren eta/edo sexu-erasoen biktima diren emakumeak.

⊕ Kudeaketa-mota: Erakunde bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 32 ordu hilean. Koordinaziorako eta txostenak egiteko urtean 10 ordu gehiago daude.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: psikologo 1.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2006. urteko ekainean jarri zen abian.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 944 20 58 00 (sarbidea Emakume eta Berdintasun Zerbitzuaren bitartez egiten da).

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Astearte eta ostiraletan 10:00etatik 14:00etara.

Laguntza psikologikoa emateko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa**	Sexu-indarkeria***
	55	55	100,0	48	5	2

* Kasu berriak, 23; aurreko kasuak, 25.

** Kasu berriak, 4; aurreko kasuak, 1.

*** Kasu berriak.



SESTAOKO UDALA

Berdintasun Arloa.

Helbidea: Castaños Eraikuntza. Las Llanas Zumardia, 4 – 2. Solairua, 10. bulegoa (48910 Sestao)
Telefonoa: 94 472 90 39

⊕ Programaren izena: **EMAKUMEEI ARRETA PSIKOLOGIKOA EMATEKO DOAKO ZERBITZUA**

⊕ **Helburu orokorrak:** Banakako laguntza terapeutikoa ematea genero-indarkeriaren edota sexu-erasoen biktima diren, baita zaurgarritasun egoera batean egon daitekeen emakumeei ere.

⊕ **Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:**

- Doako arreta psikologikoa, espezializatua eta eskuragarria bermatzea etxeko tratu txarren edota sexu-erasoen biktima diren emakumeei.
- Beharrezko baliabidea eskura jartzea, emakumeen aurkako indarkeriaren kasuen aurrean egiten den esku-hartzean eraginkortasun handiena lortzeko.
- Indarkeriaren biktima diren edo zaurgarritasun egoera batean dauden emakumeei informazioa, balorazioa eta orientazioa ematea.

⊕ **Zein kolektibori zuzentzen zaion:** Sestaoko udalerrian erroldatutako eta indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeak nahiz zaurgarritasun egoeretan daudenak.

⊕ **Kudeaketa-mota:** Erakunde batekin hitzarmena (Neba-Neba emakumeen elkarte).

⊕ **Orduak/hilean:** 24 ordu hilean. Gainera, hitzartutako erakundeak **borondatez** beste 165 ordu egiten ditu urtean.

⊕ **Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua:** 3 psikologo.

⊕ **Beste zenbait datu interesgarri:** 2009. urtean jarri zen abian.

⊕ **Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa:** 944 95 04 99 (aldez aurreko hitzordua).

⊕ **Arreta egunak eta ordutegia:** Astelehenetan 18:00etatik 20:00etara, asteazkenetan 17:30etik 19:30era eta ostegunetan 10:00etatik 12:00etara.

Laguntza psikologikoa emateko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa**	Sexu-indarkeria***
	96	96	100,0	45	15	17

* Kasu berriak, 26; aurreko kasuak, 19.

** Kasu berriak, 10; aurreko kasuak, 5.

*** Kasu berriak, 10; aurreko kasuak, 7.



ZIERBENAKO UDALA

Gizarte Ongizate Saila. Emakume eta Berdintasun Zerbitzua.
Helbidea: Kultur etxea. San Román auzoa, 6-B (48508 Zierbena)
Telefonoa: 94 636 60 07

⊕ Programaren izena: **ARRETA PSIKOLOGIKOA**

⊕ Helburu orokorrak eta garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena: Esku-hartze psikosoziala pertsoneri, familiei edo taldeei modu autonomoan moldatzeko eta gizartean modu egokian integratzeko tresnak eskuratzen lagunduko dieten testuinguruak aldatzera eta hobetzera bideratutako laguntza-harremanean oinarritzen da. Metodologia taldeko eta banakako esku-hartzea eta/edo talde-prestakuntza izan daiteke.

Programaren helburu orokorrak honako hauetan oinarritzen dira:

- Bizimodu autonomoa eta moldagarria bultzatzeko baldintza egokiak sustatzea.
- Zaurgarritasun eta zailtasun sozialeko egoeren ondorio psikologikoak prebenitzea eta arintzea.
- Zailtasun psikologikoei heltzea.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Zierbenako udalerriko biztanleria.

⊕ Kudeaketa-mota: Erakunde bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 32 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: 2 psikologo.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2008. urtean jarri zen abian.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 94 636 60 07 (sarrera Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen edo Emakume eta Berdintasun Zerbitzuaren bitartez egiten da beti.)

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Astelehenetan 16:00etatik 20:00etara eta ostiraletan 09:00etatik 13:00etara.

Laguntza psikologikoa emateko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	1	1	100,0	1	0	0

* Kasu berria.



GIZARTE ZERBITZUEN MUNGIALDE MANKOMUNITATEA

Gizarte Zerbitzuen Mungialde Mankomunitatea.
Helbidea: Aita Elorriaga, 4 behe (48100 Mungia)
Telefona: 94 615 55 51
Udalerriak: Arrieta, Bakio, Gamiz-Fika, Laukiz, Meñaka, Mungia.

⊕ Programaren izena: **ARRETA PSIKOLOGIKOA**

⊕ Helburu orokorrak: Aholkularitza psikologikoa ematea Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetatik bideratutako pertsoneri, kasuen irismena baloratuz eta, ondoren, pertsona bakoitzaren beharrei erantzungo dien zerbitzu espezializatu batetara bideratuz, tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituzten emakumeen kasu zehatzetan bezala, Bizkaiko Foru Aldundiak kudeatzen duen programara bideratzen direla.

⊕ Garatu beharreko programaren deskribapena: Erabiltzaileen kasuak baloratzea, informazioa ematea eta bertan mantentzea, leku egokira bideratu eta laguntza bertan jaso arte.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Mungialde Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile diren biztanleria helduari.

⊕ Kudeaketa-mota: Erakunde bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 64 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Psikologo bi.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2002. urtean ekin zion jarduerari.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 946 15 55 51 (zerbitzura oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik iristen dira).

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Aurretiko hitzorduarekin lan egiten da, kasuaren erreferentziako gizarte-langilea artatu eta gero; ondoren, programara bideratzen da txosten batekin batera. Hitzorduak eskariaren arabera eta erabiltzailearen beharren arabera ezartzen dira.

Laguntza psikologikoa emateko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Gutzizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena*	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	73	63	86,3	16	0	0

* Kasu berriak.



TXORIERRIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
Helbidea: Txorierriko etorbidea, 9 beheko solairua (48160 Derio)
Telefona: 94 454 03 50
Udalerriak: Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika, Zamudio.

⊕ Programaren izena: **ESKU-HARTZE PSIKOSOZIALEKO ZERBITZUA**

⊕ Helburu orokorrak eta garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena: Zerbitzua laguntza psikosozialeko harreman-prestazioen multzo bat da, banakakoa, familiakoa eta/edo taldekkoa. Beraz, esku-hartzeko zerbitzu bat da, prebentziozko izaera nabarmena duena.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion:

- Adingabeko biztanleria, zerotik 17 urtera bitartean, eta beraien familiak.
- Herritarrak orokorrean.

⊕ Kudeaketa-mota: Erakunde bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 120 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Psikologo bi.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2018an, Esku-Hartze Psikosozialeko Zerbitzuak, 2005etik familiak eta adingabeak artatzen zituenak, arreta-orduak bikoiztu zituen eta herritar guztiei zabaldu zitzaion. 2021 urtearen amaieran, zerbitzuaren arreta-ordutegia berriro zabaldu zen.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefona: 94 454 03 50 (sarrera OGZen bitartez egiten da)

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Zerbitzuaren arreta-ordutegia zabala da. Hitzorduak eskariaren arabera ezartzen dira, honako ordu-tarte honetan: astelehenetan 09:00etatik 19:00etara, astearteetan 09:00etatik 15:00etara, asteazkenetan 08:00etatik 15:00etara eta ostiraletan ordutegi berean (08:00etatik 15:00etara).

Laguntza psikologikoa emateko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Gutzizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)

(¹) Datu ez eskuragarria.



URIBE KOSTAKO ZERBITZU MANKOMUNITATEA

Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitatea.
Helbidea: Gatzarriñe, 4 (48600 Sopela)
Telefonoa: 946 76 26 74
Udalerriak: Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela, Urduliz.

⊕ Programaren izena: **LAGUNTZA PSIKOLOGIKOA.**

Zerbitzuak bere denbora (52 ordu hilabeteko) eskaeraren arabera banatzen du zailtasunak dituzten emakumeen nahiz haurren eta bere familien arretaren artean. Emakumeei dagokienez, zerbitzuaren ezaugarriak honako hauek dira:

⊕ Helburu orokorrak:

- Aholkularitza espezializatua ematea emakumeen berariazko arazoei aurre egiteko (tratu txarrak, sexu-erasoak, banantze-prozesuak, “habi hutsaren” sindromea, desberdintasun sozialeko egoerak, etab.).
- Uribe Kostako mankomunitatean, herritarren sektore honen problematikaren errealitatearen estatistikak egitea eta datu objektiboak ematea.

⊕ Garatu beharreko programaren deskribapena:

- Ebaluazioa, diagnosis, orientazioa eta esku-hartze psikologikoa erasandako emakumeekin, aurrez aurreko esku hartze saioen bitartez.
- Beharrezkoa bada, komunitateko beste zerbitzu eta baliabideetara bideratzen dira kasuak: osasun mentaleko zentro, gizarte-zerbitzu, familia-terapia, bikote-terapia, esku hartzeko berariazko programa eta bestelako bitartekoetara.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Uribe Kostako Mankomunitatea osatzen duten udalerrietako biztanleria, oro har.

⊕ Kudeaketa-mota: Erakunde bat kontratatuta.

⊕ Orduak/hilean: 52 ordu hilean.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Psikologo 1.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri: 2010eko ekainean ekin zion jarduerari.

⊕ Zerbitzura zuzenean jotzeko telefonoa: 946 76 26 74.

⊕ Arreta egunak eta ordutegia: Astelehenetan 14:00etatik 20:00etara eta ostegunetan 08:00etatik 15:00etara. **Arreta Lizarre 5ean ematen da.**

Laguntza psikologikoa emateko programa 2022. urtea	Erabiltzaileak guztira	Emakume erabiltzaileak		Indarkeriaren ondoriozko emakume erabiltzaileak		
		ZK.	Guztizkoaren %	Bikote/bikote ohiarena	Familia barrukoa	Sexu-indarkeria
	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)	(¹)

(¹) Datu ez eskuragarria.



Jarraian urteroko dokumentu honen aurreko argitaraldiarekin alderatuta Bizkaiko Lurralde Historikoan Arreta Psikologikoko baliabideetan eman diren aldaketa nagusiak batzen dira.

ALDAKETAK 2023

Baliabideen ezaugarrietan aldaketak

Foru-zerbitzuak

2023an hiru arreta-gune berri ireki dira: Portugaleten, Getxon eta Leioan.

Zerbitzuak 536 arreta-ordu eskaintzen ditu astean 2023an (aurreko 676 orduen aldean).

Udalerrri eta Mankomunitateetako Baliabideak

- Galdakaoko Udalaren baliabidearen hileko zuzeneko arretako ordu-kopurua 80 ordutik hilean 100 ordu bitartera igotzen da.
- Santurtziko Udalak baliabidearen arreta-orduak hilean 24 ordutik 32 ordura luzatu ditu.




4. ESKU-HARTZE SOZIOEDUKATIBOA ETA PSIKOSOZIALA



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA



**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA
ESKU-HARTZE SOZIOEDUKATIBOA ETA PSIKOSOZIALA
2023**





BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.
Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua.
Helbidea: Urkixo Zumarkalea, 4 (48008 Bilbo)
Telefonoa: 94 406 66 60

⊕ Programaren izena: **ESKU-HARTZE SOZIOEDUKATIBO, PSIKOSOZIAL ETA AHOLKULARITZA SOZIOJURIDIKOKO ZERBITZUA “ZERIZAN”**

⊕ **Helburu orokorrak:** emakumeek eta haien familiek pairatzen dituzten sexu-askatasunaren aurkako egintzetatik eta indarkeria matxistaren egoeretatik sortutako kalte soziala jorratzen du, ikuspegi oso batekin.

⊕ **Edukiak:**

- Biktimak babestea.
- Emakume biktimei, kargura dituzten seme-alabei eta mendekotasuna duten pertsonen laguntzea, tratu txarraren ondorioz edo sexu-askatasunaren aurkako egintzaren ondorioz bizitako kalte traumatikotik indarberritzeko.
- Emozionalki indarberritzen eta autoestimua hobetzen laguntzea, distantzia hartuz eta erasotzailearengandik edo erasotzailearengandik banatzeari aurre egiteko zein etorkizunean gerta daitezkeen eraso-saiakerei aurre egiteko gaitasunak eskuratuz edo garatuz.
- Pertzepzioak, jarrerak eta jokabideak aldatzen laguntzea, bai eta erasorik gabeko bizitza autonomo bat berreskuratzeko beharrezkoak diren jarduerak eta erabakiak kudeatzeko gaitasunak eskuratzen edo indartzen laguntzea ere.
- Emakumeak, familia-unitateak edo bizikidetzaren unitateak bizi duen indarkeria-egoeraz jabetzea, egoera horretatik aldentzeko, kontakizun kolektiboa eta ikuspegi feminista oinarri hartuta, betiere, berdintasun ezarekin, diskriminazioarekin eta botere-harremanen berdintasun ezarekin sortutako harremanak nabarmenduta.
- Bizikidetzaren testuingurua gehiago hondatzea prebenitzea, indarkeria-egoeretatik eta krisi-egoeretatik sortutako jokabideei eutsiz eta horiek landuz.
- Familiaren eta komunitatearen babes-sarearekin harreman eta lotura onen mapa berreraikitzen laguntzea.
- Arreta soziojuridikoko zerbitzu baten bitartez, tratu txarren eta sexu-erasoen kasuetatik sortutako gatazkak prebenitzea eta arintzea.
- Familia- eta bizikidetzaren unitateen prozesuetan parte hartzen duten eragile sozialekin eta/edo egitura soziokomunitarioekin lan egitea eta koordinazio-lanak egitea.



- Lehen mailako eta bigarren mailako arretan jarraitutasuneko esku-hartze ibilbideak bermatzen dituzten estrategiak sustatzea eta garatzea, koherenteak izanda eta emakumearengan zein seme-alabengan oinarrituta.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- **Esku-hartze sozioedukatiboa** biktimak tratu txarren egoeraz jabetzea eta babesteko eta indarkeriazko harreman berriak prebenitzeko tresnak eskuratzea sustatzera zuzenduta dago, baina, aldi berean, harremanean izandako sinesmenak aldatuz eta indarkeriak sortutako ondorioetatik osatzeko jokabideak berreziz.
- **Esku-hartze psikosoziala** tratu txarra jaso duen biktimaren jokabide-errepertorioak eta inguruaren testuinguruak egoera aldatzea eta hobetzea du helburu, modu autonomoan eta gizartearen barruan jardun dezan, bere hobekuntzarako **laguntza sozialeko** estrategiekin.
- **Aholkularitza soziojuridikoa**, tresna juridikoen bitartez, indarkeria matxistaren egoerak edo sexu-askatasunaren aurkako egintzak jorrazteko eta ebazteko informazio eta orientabide juridikoak eskaintzean datza.
- **Ostatu-laguntza**, ordezkari ostatu-baliabiderik ez duten emakumeentzat, 21 plazako hiru etxebizitzaz osatua.

⊕ **Zein kolektibori zuzentzen zaion:** familia- eta/do bizikidetzaren unitateak: sexu-askatasunaren aurkako balizko ekintzei eta indarkeria matxistako egoerei (emakumeen aurkako indarkeria bikotekidearekin zein bikotekide ohiaren eremuan eta familia barruko indarkeria) aurre egin behar dieten emakumeak, seme-alabak eta kargura dituzten beste pertsona batzuk.

⊕ **Kudeaketa-mota:** Suspergintza Elkartearen erakundearekin hitzarmena.

⊕ **Programaren estaldura:** Programak hilean 70 familia artatzeko gaitasuna dauka.

⊕ **Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua:** Zerbitzu-arduradun bat, 2 psikologo, 7 gizarte-hezitzaile, gizarte-langile bat eta abokatu bat.

⊕ **Programarako sarbidea:** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez, Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak indarkeria matxistaren ondoriozko babesgabatasun-egoera baloratu ondoren.

⊕ Beste zenbait datu interesgarri:

- Programa 2021eko urtarrilean ekin zion jarduerari, **etxeko eremuko indarkeriaren biktima diren emakumeetan espezializatutako Familian Esku Hartzeko Programaren ondorio gisa** (232/2007 FD, abenduaren 10ekoa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, BAO 249 zenb., 2007/12/24), 2006ko maiatzetik 2020ko abendura garatzen dena.



“ZERIZAN” <u>Esku-hartze</u> <u>Sozioedukatibo,</u> <u>Psikosozial</u> <u>Zerbitzua</u> 2022. urtea	Artatutako pertsonak	<u>Kasu berrien jatorria:</u>
	<u>Guztira: 186 pertsona</u> 90 emakume 96 seme-alaba <i>(72 adingabe: 38 neska, 34 mutil)</i> <u>Kasu berriak: 71 pertsona</u> 42 emakume 29 seme-alaba <i>(24 adingabe: 10 neska, 14 mutil)</i>	<u>Kasu berrien jatorria:</u> <ul style="list-style-type: none">▪ Berehalako Harrera Zerbitzutik: 6 emakume eta 5 seme-alaba (4 adingabe).▪ Beste foru-zerbitzuetatik: 36 emakume eta 24 seme-alaba (20 adingabe). <u>Ostatu-premiarekin:</u> <ul style="list-style-type: none">• 23 pertsona: 12 emakume eta 11 seme-alaba (10 adingabe)



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.
Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua.
Helbidea: Urkixo Zumarkalea, 4 (48008 Bilbo)
Telefonoa: 94 406 66 60

⊕ Programaren izena: **INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMA IZAN DIREN ETA ARRISKU-EGOERAN ETA/EDO BAZTERKERIA- ETA/EDO BABESGABETASUN-EGOERAN DAUDEN EMAKUMEEK OSATUTAKO FAMILIA-UNITATEEI EDO ELKARBIZITZARAKO UNITATEEI ARRETA EMATEKO FAMILIENTZAKO ARRETA PSIKOSOSIALERAKO ETA ESKU HARTZEKO PROGRAMA “SUA”**

⊕ **Helburu orokorrak:** Emakumeen eta haien ardurapeko adingabeen arteko indarkeria matxistaren ondorioak jorratzea, familia-unitate horiei laguntza sozioedukatiboa eta/edo psikosoziala emanaz. Modu osagarrian ostatu-prestazioak eta ostatuari laguntzeko prestazioak eskaintzen dira, hala behar denean.

⊕ **Edukiak:**

- Biktimak babestea.
- Biktimei eta haiekin bizi ohi diren beste pertsoneri indarkeria matxistaren ondoriozko kalte traumatikoa berreskuratzen laguntzea.
- Emozionalki berreskuratzen eta autoestimua hobetzen laguntzea, bai eta erasotzailearengandik urruntzeko eta horrekiko loturak hausteko behar diren gaitasunak eta etorkizunean gerta daitezkeen eraso-saiakerei aurre egiteko beharrezkoak diren gaitasunak garatzen ere.
- Laguntza psikosozial eta sozioedukatibo espezializatua ematea, emakumearen errealitate diferentziala kontuan hartuta eta ikuspegi interseksionaletik.
- Iraupen laburreko egonaldia behar duten biktimei eta haien bizikidetzta-unitateei ostatua eskaintzea, sendatzeko eta indarkeria-egoera gainditzeko bizileku bat izan dezaten.
- Esku-hartze komunitarioko fase bat garatzea, doikuntza psikosozialeko agertoki berriak ahalbidetzeko.

⊕ **Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:**

- **Banakako Psikoterapia**, indarkeria-egoerek eragindako ondorio emozionaleri heltzeko; autoestimua eta autonomia pertsonala sustatzeko, baita autokontrola eta ahalduntzea ere; eta beste pertsona batzuekiko komunikazioa eta harremanak hobetzeko.
- **Taldeko Psikoterapia**, beste emakume batzuekiko arazo komunaz kontzientziatzeko eta ondoeza eragiten dioten bizi-baldintzei aurre egiteko aukerak bilatzeko.
- **Familia Esku-hartzea**, familia-sistemaren oreka berrezartzeko ekintzen garapenarekin.



- **Esku-hartze Komunitarioa**, familia bere ingurune komunitarioan integratzen laguntzera bideratua, hautsitako edo hondatutako ingurune komunitarioko loturak eta gizarte-harremanak sortzea eta berreskuratzea sustatuz.
- **Ostatu-laguntza**, ordezeko ostatu-baliabiderik ez duten emakumeentzat, 15 plazako hiru etxebizitzaz osatua.

⊕ **Zein kolektibori zuzentzen zaion:**

- Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima diren emakumeak, babesgabetasun larriko egoeran edo/eta arriskuan daudenak, indarkeria matxistako egoerei aurre egiten diotenak.
- Ardurapeko seme-alabak, bizi izandako indarkeriaren biktima zuzenak.
- Emakume biktimaren ardurapeko mendeko beste pertsona batzuk, familia- edo bizikidetza-unitateko kideak.

⊕ **Kudeaketa-mota:** Erain Elkarteko Osasun Mentala S. Coop. Erakundearekin hitzarmena.

⊕ **Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua:** koordinatzaile bat, 3 psikologo eta 3 gizarte-hezitzaile.

⊕ **Programaren estaldura:** Programak hilean aldi berean 26 eta 32 familia artean artatzeko gaitasuna dauka.

⊕ **Programarako sarbidea:** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez, Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak indarkeria matxistaren ondoriozko babesgabetasun-egoera baloratu ondoren.

⊕ **Arreta egunak eta ordutegia:** Astelehenetik ostiralera 09:00etatik 20:00etara.

⊕ **Beste zenbait datu interesgarri:** Programa 2019ko otsailean ekin zion jarduerari.

<p>“SUA” Familientzako Arreta Psikosozialerako eta esku hartzeko Programa 2022. urtea</p>	<p>Artatutako pertsonak</p>	<p><u>Kasu berrien jatorria:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Berehalako Harrera Zerbitzutik datoz: 5 emakume eta 2 adingabe. ▪ Beste foru-zerbitzuetatik: 10 emakume eta 12 adingabe. ▪ OGZetatik: 3 emakume eta 2 adingabe. <p><u>Ostatu-premiarekin:</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 22 pertsona: 9 emakume eta 13 adingabe.
	<p><u>Guztira: 72 pertsona</u> 35 emakume 37 seme-alaba <i>(36 adingabe: 16 neska, 20 mutil)</i></p> <p><u>Kasu berriak: 34 pertsona</u> 18 emakume 16 seme-alaba <i>(5 neska, 11 mutil)</i></p>	



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.
Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua.
Helbidea: Urkixo Zumarkalea, 4 (48008 Bilbo)
Telefonia: 94 406 66 60

⊕ Programaren izena: **BEREGAIN - EGUNeko ARRETA-ZERBITZUA ETA EGOITZA LAGUNTZARAKO ZERBITZUA**

⊕ **Helburu orokorra:** gizarte-bazterketako eta babesgabetasuneko egoeran dauden guraso bakarreko familien buruan dauden emakumeen inklusio-premiei erantzutea, beharrezkoa den kasuetarako egoitza-arretako zerbitzu bat barne.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

Eguneko arreta-zerbitzuak barne hartzen ditu:

- **Esku-hartze psikosoziala**, emakumeen ingurunearen testuingurua hobetzera bideratua, jokabide-aldaketak eta familia- eta komunitate-baldintzak sustatuz, kalteberatasun-faktoreak murrizteko edo ezabatzeke.
- **Esku-hartze sozioedukatiboa edo hezkuntzako esku-hartzea**, jarrera eta ohitura desegokiak aldatzea sustatzeko eta autonomiaz moldatzeko eta gizarteratzeko egokiak diren beste batzuk eskuratzeko.
- **Gizarte-laguntza**, laguntza instrumentala, emozionala, hezitzailea eta harremanetakoa emanez, bai eta informaziokoa ere, baliabideak eta zerbitzuak eskuratzeko, eta gizarteratzeko eta autonomiarako lagungarri izan daitezkeen eskubide eta prestazioei buruzkoa.
- **Beste prestazio osagarri batzuk**, besteak beste, osasun-prestazioak, gizarte- eta lan-laguntza, eta arreta eta jarraipen psikologikoa.

Egoitza-zerbitzuak honako prestazio hauek barne hartzen ditu: **arreta pertsonala** (norberaren zaintzako eta ardurapeko pertsonen zaintzako jarduerak egiteko laguntza); **etxeko arreta**; eta **esku-hartze sozioedukatibo baita hezkuntzako esku-hartzea ere**.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion:

- Babesgabezia eta/edo bereizkeria egoeran dauden emakumeak, haurdunaldian bakarrik dauden emakumeak edo euren kargura seme-alaba adingabeak dituztenak, babesgabezia eta/edo bereizkeria arrisku larrian badaude, baliabide pertsonalik eta laguntza sozio-familiarrik ez badute.

⊕ **Kudeaketa-mota:** Itaka-Escolapios Fundazioarekin hitzarmena.

⊕ **Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua:** koordinatzaile bat, psikologo bat eta 7 gizarte-hezitzaile.



⊕ **Programaren estaldura:** Eguneko arreta-zerbitzuak 42 plaza ditu guztira (horietako 14k ostatu-laguntza dute).

⊕ **Programarako sarbidea:** Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez, Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak babesgabetasun-egoera baloratu ondoren.

⊕ **Arreta egunak eta ordutegia:** Astelehenetik ostiralera (lanegunetan) 09:30etatik 13:30etara eta 15:30etatik 19:30etara.

⊕ **Beste zenbait datu interesgarri:**

- Programa 2019ko abenduan ekin zion jarduerari.

BEREGAIN programa 2022. urtea	Artatutako pertsonak	Kasu berrien jatorria:
	<u>Guztira: 27 pertsona</u> 12 emakume 15 adingabe <i>(7 neska, 8 mutil)</i> <u>Kasu berriak: 11 pertsona</u> 5 emakume 6 adingabe <i>(2 neska, 4 mutil)</i>	<ul style="list-style-type: none">▪ Berehalako Harrera Zerbitzutik: 3 emakume eta 3 adingabe.▪ OGZetatik: 2 emakume eta 3 adingabe. Ostatu-premiarekin: <ul style="list-style-type: none">▪ 11 pertsona: 5 emakume eta 6 adingabe.



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.
Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua.
Helbidea: Urkixo Zumarkalea, 4 (48008 Bilbo)
Telefona: 94 406 66 60

⊕ Programaren izena: **INDARKERIA MATXISTATIK BIZIRIK ATERA DIREN EMAKUMEEI LAGUNTZEKO ZERBITZUA “HAZIAK”**

⊕ **Helburu orokorra:** Emakumeen eta haien ardurapeko adingabeen indarkeria matxistaren ondorioak jorratzea, familia unitateari laguntza sozioedukatiboa eta/edo psikosoziala ematera bideratutako harreman prestazioen bidez, hainbat esku hartze modalitatearen bitartez eta hautemandako premien bitartez. Eguneko Arreta Zerbitzua du, eta aldi baterako ostatua eta ostatu-laguntza eskaintzen die behar duten emakumeei.

⊕ Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:

- Gizarte-laguntza, laguntza instrumentala, emozionala, hezitzailea eta harremanezkoa.
- Gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzea eta esku-hartze psikosoziala, besteak beste honako alderdi hauek barnean hartuta:
 - *Esku-hartze psikosoziala*, pertsonen inguruko egoerak eta testuinguruak hobetzeko eta jokabideetan aldaketak bultzatzea gizarte-ahultasuna mantentzen duten faktoreak ezabatzeko.
 - *Esku-hartze (sozio)edukatiboa*, jarrera eta ohitura egokiak hartzera bideratuta edozein testuingurutan autonomiaz moldatzeko eta gizarteratzeko.
 - *Lanerako eta laneratu aurreko esku-hartzea*, jarrera, ezagutza eta trebetasun baliagarriak garatzeko beren kabuz lan-eremuan jarduteko eta gizarteratzeko (enplegurako prestakuntza).
 - *Esku-hartze estimulatzaila edo errehabilitatzaila*, autonomia-maila handiagoa izateko, jarrera, trebetasun edo gaitasun fisiko, kognitibo edo jokabidezkoak eskuratzeko, garatzeko, mantentzeko edo berreskuratzeko helburuarekin.
 - *Bitartekotza*, familia, talde edo komunitatearekin elkarreragina hobetzeko.
 - Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonak gizarteratzeko *laguntza-sare sozialak sustatzea*.
 - *Hainbat gizarte-eragilek* gizarte zailtasunak dituzten kolektiboak sartzeari laguntzea.
- Jarraipenaren balorazioa.
- Osasun-prestazioak, gizarte-zerbitzuen eremukoak.
- Familiarekin esku-hartzea, bizikidetza egokia eta ardurapean dauden pertsonak zaintza egokia ahalbidetzeko laguntza eraginkorrak garatzeko.
- Bizimodu independentea babestea.



- Ostatu-laguntza, hala behar duten emakumeentzat (4 plaza etxebizitzan eta 3 plaza ostatu komunitarioan).

⊕ **Zein kolektibori zuzentzen zaion:**

- Emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak, babesgabetasun larrian daudenak, bestelako kontingentziak pairatu dituztenak.
- Ardurapeko seme-alabak, bizi izandako indarkeriaren biktimak.
- Emakume biktimaren ardurapeko mendeko beste pertsona batzuk, familia- edo bizikidetza-unitateko kideak.

⊕ **Kudeaketa-mota:** Hitzarmena Euskadiko Birgizarteratze Institutuaren Elkartearekin.

⊕ **Programaren estaldura:** Laguntza Zerbitzuaren estaldura-ahalmena hilean gutxienez bost eta gehienez hamar kasukoa izan daiteke, artatutako kasuen ezaugarrien arabera.

⊕ **Zerbitzua ematen duten profesional kopurua:** Koordinatzaile 1, 5 hezitzaile.

⊕ **Programarako sarbidea:** OGZen bidez, Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak indarkeria matxistaren ondoriozko babesgabetasun-egoerari buruzko balorazioa egin ondoren.

⊕ **Beste zenbait datu interesgarri:**

- Zerbitzua 2022ko abenduaren 1ean ekin zion jarduerari.



5. FAMILIA ELKARGUNE ZERBITZUAK




BIZKAIKO UDALERRIEK ETA MANKOMUNITATEEK
KUDEATUTAKO BALIABIDE AUTONOMIKOA



BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA

FAMILIA ELKARGUNEAK 2023



* Zerbitzua Portugalete eta Zallan ematen da.

**Zerbitzua Bilbon, Durangon eta Gernika-Lumon ematen da.



EUSKO JAURLARITZA

Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila.
Helbidea: Donostia-S. Sebastián Kalea, 1 (01010 Vitoria-Gasteiz)
Telefonoa: 945 01 91 36

⊕ Programaren izena: **FAMILIA ELKARGUNEA (DERIBAZIO JUDIZIALA EMATEN DEN KASUETARAKO).**

⊕ Helburu orokorrak:

- Gurasoen banantzearen ondoren adingabeak biekin harremanak izateko duen eskubidea, oinarritzkoa dena, betearaztea eta beraren garapen psikiko, afektibo eta emozionalerako behar diren loturak ezartzea.
- Gurasoei sostengu fisikoa (lokala) eta batzuetan profesionala ematea euren kabuz molda daitezen eta, egunen batean, seme-alabekin harremanak izan ditzaten zerbitzuaren menpe egon barik.
- Bisitak tutorearekin egin behar direnean, adingabearen Integritatea eta ongizatea zaintzea.

⊕ Eskeinitako zerbitzuen deskripzioa:

- Eman eta biltzeko Zerbitzua.
- Tutoretzarik gabeko bisita-zerbitzua.
- Tutoretzapeko bisita-zerbitzua.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion:

- Bikote-hausturagatiko gatazkak eta bisita-araubidea betetzearekin lotutako arazo larriak dauden familia bateko kide diren adingabeak.
- Bikote-hausturagatiko gatazkak dauden familia bateko kide diren adingabeak, eta genero-indarkeriaren biktima babesteko eta horrengandik urruntzeko neurriren bat indarrean bada, edo izapidetze-bidean bada.
- Ebazpen judizial bidez erabakitako bisita-araubidea betetzeko edo adingabeak laguntzeko zerbitzura jotzen duten pertsona helduak eta baimenduak.



⌘ Arreta egunak eta ordutegia:

Bilbon:

- Astelehenetik ostegunera, 16:00etatik 21:00etara.
- Ostiraletik igandera, 10:00etatik 21:00etara.

Durangon¹⁵:

- Asteazkenak eta ostiralak, 16:00etatik 20:00etara.
- Larunbatak eta igandeak, 09:00etatik 14:00etara.

Gernika-Lumon¹⁶:

- Astearte eta ostegunetan, 16:00etatik 20:00etara.
- Larunbat eta igandeetan, 16:00etatik 20:00etara.

⌘ **Kudeaketa mota:** Bizgarri empresari esleitutako kontratua.

⌘ **Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua:** Psikologo bat koordinatzaile zereginen; Psikologian lizentziaturiko hiru pertsona; abokatu bat; 16 hezitzaile, gizarte langile bat.

⌘ **Programan sartzeko modua:** Eratorpen judiziala.

⌘ **Arautegi erregulatzaileria:** 124/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituen (BOPV 2008/08/07 EHAA), eta azaroaren 22ko 239/2011 Dekretuagatik aldatuta izan dena (BOPV 2011/12/01 EHAA).

⌘ **Eskumena:** Justizia arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saila (Justizia Zuzendaritza).

⌘ **Beste zenbait datu interesgarri:** Bilbon kokatzen den zerbitzu hau 2002ko azaroan martxan jartzen da Bizkaiko Foru Aldundiaren eskutik. Erakunde honen eta BFA-ren artean sinatutako kolaborazio hitzarmen baten bitartez azken honi eman zitzaion, 2011an, Bilbon kokatzen den eta deribazio judiziala dagoen kasuetarako, Familia Elkargunearen zerbitzuaren kudeaketa. Kudeaketa-mandatu hau 2015eko ekainaren 30a arte mantendu da. 2015eko uztailaren 1etik aurrera, zerbitzua zuzenean justizia arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailaren menpe egotera igarotzen da.

¹⁵ Durangoko Familia Elkargunean Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko herrietako biztanleria artatzen da; Lea-Artibai Amankomunazgokoa; eta etorkizunean eransteko eskaera egin dezaketen hurbileko beste udalerrietako biztanleria.

¹⁶ Gernika-Lumon Busturialdeko Mankomunitateko udalerrietako biztanleria artatzen da; baita etorkizunean eransteko eskaera egin dezaketen hurbileko beste udalerrietako biztanleria.



Familia Elkarguneko Programa (BILBO)		
Familia Elkargunea 2022. urtea	KASUAK GUZTIRA	<u>ADINGABEAK</u> 381 (194 neska eta 187 mutil) <u>FAMILIAK</u> 285
	<u>AMAREN ALDEKO BABES AGINDUA DUTEN KASUAK</u>	<u>ADINGABEAK</u> 129 (63 neska eta 66 mutil) (FEan dauden adingabeetako guztizkoaren %33,9a) <u>EMAKUMEAK</u> 92



BARAKALDOKO UDALA

Gizarte Ekintza Saila. Haurrak, gazteak eta familia atala.
Helbidea: Lasesarre kalea 16 (48901 Barakaldo)
Telefonoa: 94 478 92 08

⌘ Programaren izena: **FAMILIA ELKARGUNEA (DERIBAZIO JUDIZIALA EMATEN DEN KASUETARAKO).**

⌘ Helburu orokorrak:

- Gurasoen banantzearen ondoren adingabeak biek harremanak izateko duen eskubidea, oinarrizkoa dena, betearaztea eta beraren garapen psikiko, afektibo eta emozionalerako behar diren loturak ezartzea.
- Gurasoei sostengu fisikoa (lokala) eta batzuetan profesionala ematea euren kabuz molda daitezten eta, egunen batean, seme-alabekin harremanak izan ditzaten zerbitzuaren menpe egon barik.
- Bisitak tutorearekin egin behar direnean, adingabearen Integritatea eta ongizatea zaintzea.

⌘ Eskeinitako zerbitzuen deskripzioa:

- Eman eta biltzeko Zerbitzua (haurrak eta nerabeak ematea eta jasotzea).
- Tutoretzarik gabeko bisita-zerbitzua.
- Tutoretzapeko bisita-zerbitzua.

⌘ Zein kolektibori zuzentzen zaion: Barakaldoko Barruti Judizialaren udalerrien biztanleria¹⁷.

⌘ Kudeaketa mota: Egintza Elkarteari esleitutako kontratua.

⌘ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Psikologo bat koordinatzaile zereginen; psikologo bat; hezitzaile bi eta gizarte langile bat.

⌘ Arreta egunak eta ordutegia:

- Astearteak, asteazkenak eta ostiralak: 17:00etatik 21:00etara.
- Larunbatak eta igandeak: 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:30era.

⌘ Programan sartzeko modua: Eratorpen judiziala.

¹⁷ Osatzen duten udalerrak: Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Alonsotegi, Barakaldo, Muskiz, Ortuella, Santurtzi, Sestao, Valle de Trápaga-Trapagaran, Zierbena (Barakaldoko Barruti Judiziala ere Portugaleteko udalerrira barne hartzen du, aurreko zerrendan agertzen ez dena, bere udalak ere kudeatzen baitu familia elkargune zerbitzu bat).



⊕ **Arautegi erregulatzaileria:** 124/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judzialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituen (BOPV 2008/08/07 EHAA), eta azaroaren 22ko 239/2011 Dekretuagatik aldatuta izan dena (BOPV 2011/12/01 EHAA).

⊕ **Eskumena:** Justizia arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saila (Justizia Zuzendaritza). Erakunde honen eta Barakaldoko Udalaren artean sinatutako kolaborazio hitzarmen baten bitartez azken honi eman zitzaion 2014an Barakaldon ezarritako eratorpen judiziala ematen den kasuetarako Familia Elkargunearen zerbitzuaren kudeaketa.

⊕ **Beste zenbait datu interesgarri:** Jardueren hasiera 2009ko abenduan.

Familia Elkarguneko Programa (BARAKALDO)		
Familia Elkargunea 2022. urtea	KASUAK GUZTIRA	<u>ADINGABEAK</u> 98 (37 neska eta 61 mutil) <u>FAMILIAK</u> 78
	<u>AMAREN ALDEKO BABES AGINDUA DUTEN KASUAK</u>	<u>ADINGABEAK</u> 24 (7 neska eta 17 mutil) (FEan dauden adingabeetako gutzizkoaren %24,5a) <u>EMAKUMEAK</u> 18



PORTUGALETEKO UDALA

Gizarte Ongizate Saila.
Helbidea: Solar Plaza z.g. 1. solairua (48920 Portugalete)
Telefona: 94 472 92 00

⊕ Programaren izena: **FAMILIA ELKARGUNEA (DERIBAZIO JUDIZIALA EMATEN DEN KASUETARAKO).**

⊕ Helburu orokorrak:

- Gurasoen banantzearen ondoren adingabekoak biekin harremanak izateko duen eskubidea, oinarrizkoa dena, betearaztea eta beraren garapen psikiko, afektibo eta emozionalerako behar diren loturak ezartzea.
- Gurasoei sostengu fisikoa (lokala) eta batzuetan profesionala ematea euren kabuz molda daitezen eta, egunen batean, seme-alabekin harremanak izan ditzaten zerbitzuaren menpe egon barik.
- Bisitak tutorearekin egin behar direnean, adingabekoaren Integritatea eta ongizatea zaintzea.

⊕ Eskeinitako zerbitzuen deskripzioa:

- Eman eta biltzeko Zerbitzua (haurrak eta nerabeak ematea eta jasotzea).
- Tutoretzarik gabeko bisita-zerbitzua.
- Tutoretzapeko bisita zerbitzua.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion:

- Barakaldoko Barruti Judizialaren barne dauden udalerrien biztanleria¹⁸.
- Balmasedako Barruti Judizialaren barne dauden udalerrien biztanleria¹⁹.

⊕ Kudeaketa mota: Egintza Elkarteari esleitutako zerbitzuen kontratazioa.

⊕ Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua: Psikologo bat koordinatzaile zereginen; psikologo bi; lau gizarte hezitzaile eta gizarte langile bat.

⊕ Arreta egunak eta ordutegia:

Portugaleten:

- Asteazkenak 16:00etatik 20:30era eta ostiralak 16:30etik 20:30era.
- Larunbatak eta igandeak, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

¹⁸ Osatzen duten udalerriek: Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena, Alonsotegi, Muskiz, Ortuella, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Trapagaran, Zierbena (Barakaldoko Barruti Judiziala ere Barakaldoko udalerria barne hartzen du, aurreko zerrendan agertzen ez dena, bere udalak ere kudeatzen baitu familia elkargune zerbitzu bat).

¹⁹ Osatzen duten udalerriak: Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Güeñes, Karrantza Harana/ Valle de Carranza, Lanestosa, Sopuerta, Trucios-Turtzioz eta Zalla.



Zallan:

- Asteazkenak eta ostiralak 17:00etatik 20:00etara.
- Larunbat eta igandeak 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara (hileko lehen eta hirugarren asteburuetan).

⊕ **Programan sartzeko modua:** Eratorpen judiziala.

⊕ **Arautegi erregulatzaileria:** 124/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoan deribazio judizialaren bidezko Familia Elkarguneak arautzen dituen (BOPV 2008/08/07 EHAA), eta azaroaren 22ko 239/2011 Dekretuagatik aldatuta izan dena (BOPV 2011/12/01 EHAA).

⊕ **Eskumena:** Justizia arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako saila (Justizia Zuzendaritza). Erakunde honen eta Portugaleteko Udalaren artean 2011an sinatutako kolaborazio hitzarmen baten bitartez azken honi eman zitzaion Portugaleten ezarritako eratorpen judiziala ematen den kasuetarako Familia Elkargunearen zerbitzuaren kudeaketa.

⊕ **Beste zenbait datu interesgarri:** Jardueren hasiera 2002ko azaroan.

Familia Elkarguneko Programa (PORTUGALETE-ZALLA)		
Familia Elkargunea 2022. urtea	KASUAK GUZTIRA	<u>ADINGABEAK</u> 107 (49 neska eta 58 mutil) <u>FAMILIAK</u> 87
	<u>AMAREN ALDEKO BABES AGINDUA DUTEN KASUAK</u>	<u>ADINGABEAK</u> 31 (14 neska eta 17 mutil) <i>(FEan dauden adingabeetako gutzizkoaren %29a)</i> <u>EMAKUMEAK</u> 27




6. LAGUNTZA SOZIALEKO AGENTEEEN SAREA



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA



**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA
LAGUNTZA SOZIALEKO AGENTEEN SAREA 2023**





BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.
Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua.
Helbidea: Urkixo Zumarkalea, 4 (48008 Bilbo)
Telefona: 94 406 66 60

⌘ Programaren izena: **LAGUNTZA SOZIALEKO AGENTEEN SAREA**

⌘ Helburu orokorrak:

- **Laguntza Sozialeko Agenteen Sare bat mantentzea eta zabaltzea**, printzipioz, bikotekidearen edo bikotekide ohiak eragindako tratu txarren biktima diren emakumeak antzemateko, erakartzeko, informatzeko, orientatzeko eta laguntzeko.
- **Gizartea sentsibilizatzen laguntzea**, emakumeen aurkako indarkeriak dakarren arazo larriari buruz eta indarkeria hori desagerrarazteko gizarte zibilaren parte-hartzeak duen garrantziari buruz.

⌘ Eskaintako zerbitzuen deskripzioa:

Laguntza Sozialeko Agentearen figura emakumeen eta erakundeen arteko lotura egiten duen borondatezko figura dela ulertzen da. Hori dela eta, beharrezkoa da konpromiso soziala duten emakumeak izatea eta elkarteren batean parte-hartzea.

Laguntza Sozialeko Agenteen lana izango da indarkeria sexistaren biktima diren emakumeei tratu txarren egoeratik ateratzeko dauden baliabideei buruzko informazioa eta orientazioa ematea, baita baliabide horiei hasierako akonpainamendua egitea ere.

Gainera, Laguntza Sozialeko Agentek emakumeen aurkako indarkerian espezializatutako profesional talde bat izango dute, eta talde horrek, aldi berean, laguntza eta jardueren jarraipena egingo dute.

⌘ **Zein kolektibori zuzentzen zaion:** Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria sexistaren biktima diren emakumeak, egoera horretan daudenak eta indarkeriazko harremanetik behin betiko ateratzeko baliabideren bat behar dutenak.

⌘ **Kudeaketa mota:** Suspergintza Elkarteari esleitutako kontratazioa.

⌘ **Zerbitzua ematen duten pertsona kopurua:** Koordinatzaile 1 eta 4 gizarte hezitzaile.

⌘ **Parte hartzen duten elkarte kopurua:** 2022ko abenduaren 31n Bizkaiko Laguntza Sozialeko Agenteen Sarea 22 elkarte osatzen zuten.



⊕ **Sarean dauden agente kopurua:** 2022. urteko abenduaren 31n 33 gizarte-laguntzako agente zeuden lanean, tratu txarren biktima diren emakumeen antzemate, babes eta laguntza eginkizunak betetzen.

⊕ **Beste zenbait datu interesgarri:** Programa 2012ko ekitaldiaren erdialdean hasi zen proiektu pilotu gisa, eta hainbat irizpideren arabera aukeratutako elkarteak hautatu zituen, hala nola, elkartearen tamaina, ezaugarriak eta irismena, kokapena, ordezkagarritasun-maila, bazkideen aniztasuna eta abar. Proiektu pilotu hori 2013ko abenduaren 31ra arte luzatu zen. Esperientzia eta haren irismena positiboki ebaluatu ondoren, 2014ko urtarrileko 1etik programa hau Bizkaiko Foru Aldundiaren zerbitzu-zorroari gehitu zaio.

Nabarmentzekoa da sare hori osatzen duten elkarte ugari daudela, bai ordezkatzeko dituzten emakumeen kolektiboengatik, bai egiten duten jardura motagatik eta kokapen geografiko desberdinagatik. 2021eko parte-hartzaileek Bilboko, Eskuinaldeko, Ezkerraldeko, Durangaldeko, Uribe Kostako eta Enkarterriko eskualdetan egiten dute lan, eta Sareak estaldura zabala eskaintzen dio Bizkaiko Lurralde Historikoari. Beren jardunari dagokionez, askotariko eremuetakoak dira (degaitasunaren eremukoak, landa- eta hiri-eremukoak, kultura- eta gizarte-aniztasunekoak, eremu feministakoak, gizarte- eta kultura-esparrukoak, aisialdiko eta denbora libreko eremukoak...).

⊕ **Programan sartzeko modua:** Programari buruzko informazioa jaso nahi duten elkarteek edo, horren berriz izanda ere, Sarera atxikitzeko interesa duten eta parte hartu nahi duten boluntarioak dituzten elkarteek Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuarekin harremanetan jarriko dira.



**7. GENERO-INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN DIREN ADINGABEETAN
ESPEZIALIZATUTAKO FAMILIA ESKU-HARTZEA EGITEKO PROGRAMA**




BIZKAIKO FORU ALDUNDIA



BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOA

GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN DIREN ADINGABEETAN ESPEZIALIZATUTAKO FAMILIA ESKU-HARTZEA 2023





BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila.
Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzua.
Helbidea: Urkixo Zumarkalea, 4 (48008 Bilbo)
Telefona: 94 406 66 60

⊕ Programaren izena: **GENERO INDARKERIAREN BIKTIMA IZAN DIREN ADINGABEETAN ESPEZIALIZATUTAKO FAMILIA ESKU-HARTZEA EGITEKO PROGRAMA (TXIKIAK)**

⊕ Helburuak eta edukia:

1. Genero-indarkeriaren biktimak diren umeengan eta ama eta seme-alaben arteko loturan gertatu diren kalteen balorazioa.
2. Arreta jasotzen duten kasu guztietan garatu behar den esku hartze psikoterapeutikoaren eta sozioedukatiboaren plangintza eta programazioa.
3. Garatu behar den esku hartzea praktikara eramatea.
4. Etengabeko ebaluazioa esku-hartze prozesuaren fase guztietan.
5. Gizarte eragileekiko koordinazioa eta lankidetzak.

⊕ Programaren eduki orokorrak:

- Seme-alabei eragindako kaltearen balorazioa, eta zuzeneko behaketa (ahal den neurrian), **bai adingabeari dagokionez, bai amarekin, aitarekin eta abarrekin duten harremanari dagokionez:**
 - Tratu txarraren eta abusuaren ezaugarriak. Seme-alabek zein amak bizi izandako Indarkeriaren Zikloa aztertzea, tratu txarren bizipenean hartutako rola eta estrategiak aztertzea, eta abar.
 - Ondorioak: emozionalak, kognitiboak eta jokabidezkoak, sozialak, akademikoak, osasun fisiko eta psikikoaren gainekoak ...
 - Babes eta/edo arrisku faktoreen presentzia edo ausentzia, hala indibidualak nola ingurukoak.
- Kaltea esku-hartze zuzenaren edo zeharkakoaren bidez konpontzea (zeharkakoa izango da, zuzeneko esku-hartzea kaltegarria dela edo ezinezkoa dela balioetsi denean).
- Kaltearen balorazioa eta konponketa amaren eta seme-alaben arteko loturan.
- Babes-faktoreak indartzea, erresilientzia sustatzea, erresilientzia hori ahalbidetuko duten loturak ezartzea.
- Esku-hartze psikologikoa krisian.
- Beharrezkoa denean, babes-plana egitea, edo erakunde eskudunetara bideratzea.



- Erasotzailearekin harremanetan jarriz gero, kontaktu horrek dakarren arriskuaren balorazioa, betiere tartean adingabekoen alde aitarekiko babes agindurik ez badagoen.
- Gatazkak, gizarte-trebetasunak, eta abar konpontzen lan egitea.
- Gaur egun edo etorkizunean, indarkeriak markatutako harreman-ereduak berregin ditzaten saihestea.
- Adingabekoen garapenean eta prestakuntzan inplikaturik dauden profesionalei aholkularitza ematea, hautemateko eta esku hartzeko.
- Beste neurri edo baliabide batzuk aktibatzea, beharrezkoa izanez gero, edo beste erakunde batzuei jakinaraztea.

⊕ Zein kolektibori zuzentzen zaion:

- Indarkeria matxistako testuinguruetan bizi izan diren mutil, neska eta nerabeak (3 urtetik aurrera).
- Horien amak (genero-indarkeriaren biktimak), adingabe hauekin bizi direnean, edo erreferentziazko pertsona zaintzailea.
- Adingabe horien gurasoak, erasotzaileak ez direnean; edo elkarrekin bizi diren senideak edo egoerak eragiten dienak.
- Adingabe horien gurasoek, erasotzaileak direnean, baina harremana mantentzen dutenean, esku-hartzea eskatzen dutenean eta horretan parte hartzeko prest daudenean, betiere esku-hartzeak seme-alabak edo emakumea bera arriskuan jartzen ez baditu.
- Bikotekideen eta haiekin bizi diren pertsonen esku hil diren amen mutilak, neskak eta nerabeak.

⊕ **Garatu beharreko esku-hartze programaren deskribapena:** Programak esku-hartze malgua eta kasu bakoitzaren berezitasunetara egokitua eskaintzen du; ezaugarri pertsonalak, rol edo genero desberdinak, babes-faktoreak, arrisku-faktoreak, neskatoen ahalduntzea, eta mutil, neska eta nerabeentzako eredu berriak kontuan hartuz. Esku-hartze hori honako hau izan daiteke:

- Esku-hartze psikoterapeutikoa.
- Esku-hartze psikoterapeutikoa eta sozioedukatiboa.

⊕ **Kudeaketa mota:** Berriztu Hezkuntza Elkartarekin hitzarmena.

⊕ **Programaren estaldura:** Programak hilean 40 adingabe artatzeko gaitasuna du.

⊕ **Zerbitzua eskaintzen duen pertsona kopurua:** Koordinatzaile bat, gizarte hezitzaile bi eta hiru psikoterapeuta.

⊕ **Beste zenbait datu interesgarri:** 2016ko urriaren 1ean martxan jarri zen.



⊕ **Programara sartzeko modua:** Eskerak udaletako Gizarte Zerbitzuen edo erakunde deribatzaileen bidez aurkeztu ahal izango dira, baita BFAko Enplegua, Gizarte Kohesioa eta Berdintasuna Sustatzeko Sailaren Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuan zuzenean aurkeztu daitezke ere.

Kasuak erakunde judizial edo polizialeatik, udaletako Gizarte Zerbitzuetatik eta beste entitate edo instituzioetatik (Osakidetza, Hezkuntza, Modulu Psikosozialak...) deribatu daitezke. Horrez gain, Bizkaiko Foru Aldundiaren Haurren Zerbitzuak eta Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuak balioesten dituzten kasuak.

Genero Indarkeriaren biktima izan diren adingabeetan espezializatutako familia esku-hartzea egiteko Programa 2022. urtea	Artatutako pertsonak	<u>Kasu berrien ezaugarriak:</u> <ul style="list-style-type: none">▪ Adingabeak: %32,3a aitarenaganako babes-aginduekin.▪ Amak (genero indarkeriaren biktimak): %95a bere aldeko babes aginduekin.
	<u>Guztira</u> 56 adingabe 38 ama <u>Kasu berriak</u> 31 adingabe: 13 mutil eta 18 neska 20 ama	